El Parlamento Vasco, que, conforme al artículo 10.5 del Estatuto, tiene libertad para señalar el ámbito de aplicación de las instituciones forales, no puede hacerlo arbitrariamente, y, aunque en el futuro -según los estudios lo aconsejen y la sociedad lo reclame-, podrá hacer modificaciones y seguramente deberá hacerlas, en

rrelakorik sartu beharra egongo da-ta, gure Zuzenbidearen lehen gorpuzketa honetan, legea sakon ausnartuta egindakoan, ez dau Zuzenbidea gaurregunatu besterik egiten, 1959.eko Bildumak oraindino jasotzen ebazan gauza zaharkituak ezabatu eta bertan agertzen ez ziran eta berez oso sustraiturik egozan beste erakunde batzuk agerterazoz.

Edozelan be, guzti hori ez daitela izan eragozpen gure Unibertsitateetan, zorionez, indartsu sortu diran ikerketak ugaritu daitezkan, euron bidez erabarritze eta lege-aldaketak eragin leitekez-eta, ezarpen-esparruan bertan be, Zuzenbide Zibil barriztua eta gizarte-aldetik aurreratua lortu arte. Bilatu behar ditugun euskal Zuzenbide Zibilaren baterako berezitasunak agertuz joango dira eurotan sakondu eta aztertu ahaia, oraingo idatziz dagozan sistemak eta euren ezarpen-esparru zehatzek eragin leikien erakarpen-indarra ekidin ezinezkoa dala.

METODOLOGIA

Aitatutako arrazoiokaitik, Bizkaia eta Arabaren kasuan, Bildumaren eraketa eta atal-hurrenkerea zaindu beharrik ez dau ikusi Legegileak. Esparru estuegia da eta horretara zertan mugatu ez dauka. Bildumak aintzakotzat hartu ez ebazan erakunde biziak, alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua esaterako, sartu beharra egoan, edo aitatu baino egiten ez ebazan beste batzuk, 11. atalean agertzen diran oinordetzazko itunak edo Aiarako podere osoko gozamina adibidez, behar bestean garatu beharra zegoen, azken hori garrantzi-eragaitik ez da-ta benetan ezaigarri izan.

Ezinbestekoa zan Atariko Idazpuru egitea, batez be Zuzenbidearen iturburuen arloan giltzarri bi finkatzeko: ohiturea zaintzea, Bizkaian tradizio haundikoa dana, eta gure Zuzenbidearen oinarri orokorren babesa, eurok barik arau juridikoak bere benetako bizitasuna galdu egiten dau-ta, inoiz Foruaren iturburuei jaramonik egin ez eta zuzenbide osogarrira jo izanagaitik foru senetik guztiz urrundutako ondorioetara heldu izan dala epaigintza.

Horrela bada, Atariko-Idazpuruak eta luzera ez-bardineko hiru Liburuk, lehenengoa Bizkaikoa, bigarrena Arabakoa eta hirugarrena Gipuzkoakoa, osatzen dabe testua.

AUKERATUTAKO IZENA

Bilduma hitza, gure artean tradizionerik bakoa, Legearen helburuari ez jako egokitzen ezta izaerari be, helburu hori euskal Zuzenbide pribatua goitik-behera eguneratzea da-ta. Hortik dator Euskal Herriko Foru Zibilar buruzko Lege izena emon izana. Zibila Zuzenbide pribatua baino ez daualako hartzen; Foruzkoa Zuzenbide arruntetik bereizteko eta ez antxinako eta ezarpen-esparruz Euskal Herriko erakundeak berpiztu egiten ditualako, nahiz eta Zuzenbide Arrunteko esparruak be egon.

esta primera elaboración de nuestro Derecho, a la que se llega tras profunda meditación de la ley, se limita a hacer la necesaria adaptación del Derecho a nuestros tiempos, eliminando algunos anacronismos que la Compilación de 1959 aún mantenía y restaurando instituciones muy arraigadas de las que prescindía.

Todo ello sin perjuicio de que se fomenten los estudios que felizmente se han iniciado con fuerza en nuestras Universidades y que permitirán en un futuro próximo nuevas reformas y modificaciones legales, incluso en el ámbito territorial, hasta lograr un Derecho Civil moderno y socialmente avanzado. Los rasgos comunes del Derecho Civil vasco que debemos descubrir irán perfilándose mejor a medida que se profundice en su conocimiento y análisis, sin que, de momento, pueda evitarse la predominante referencia a los sistemas formulados por escrito y a sus ámbitos concretos de aplicación.

METODOLOGÍA

Por las razones expuestas, el legislador no se considera obligado a respetar la sistemática y orden de la Compilación de 1959 para Bizkaia y Álava. Es un marco demasiado estrecho. Había que incluir instituciones vivas que la Compilación ignoró, como el testamento mancomunado, o dar suficiente desarrollo a otras que, como los pactos sucesorios, solamente aparecen apuntadas y se señalan sin ningún desarrollo en el artículo 11, o como el usufructo poderoso ayalés, en el que la falta de desarrollo ha impedido de hecho su aplicación.

Resultaba asimismo inevitable un Título Preliminar que atendiera especialmente a fijar dos puntos esenciales en materia de fuentes del Derecho: el respecto a la costumbre, tan tradicional en Bizkaia y Ayala, y la salvaguarda de los principios generales del Derecho, principios sin los cuales la norma jurídica queda desprovista de su verdadera vida. El recurso al derecho supletorio, sin atender a los principios inspiradores del Fuero, ha permitido a alguna jurisprudencia llegar a conclusiones totalmente alejadas del sentimiento foral.

Como consecuencia, se articula el texto en un Título Preliminar y tres Libros de dimensión desigual, uno para Bizkaia, otro para Álava y el tercero destinado a Gipuzkoa.

DENOMINACIÓN

La palabra Compilación, sin tradición entre nosotros, no responde al carácter y objetivos de esta ley, que es el de hacer una total puesta al día del Derecho privado vasco. De aquí que la denominemos Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco. Civil porque se limita al Derecho privado; Foral, para distinguirlo del Derecho común, y no porque resucite instituciones antiguas; y del País Vasco, por su ámbito de aplicación, aun cuando existan territorios de Derecho común.

LEGEAREN AZTERKETA

I. LIBURUA
BIZKAIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

Bizkaiak betirik euki izan dau bere legeria egiteko eskubidea, eta Foru-Jaurpidea behera etorri zanean baino ez eban hori galdu. Foru-legeria indarrean egon zan bere osotasunean 1959. urteko Bilduma egin zan arte, honek moztu eta murriztu egiten ebala hainbat arlotan. Ohizko foru-legeria berreskuratzeko eskubidea Konstituzinoak babesturiko "jatorrizko eskubidetza" hartu behar dogu, diktadura-garaietan egindako Bilduma horrek sakon erasotako jatorrizko eskubidea.

Erabagi guztiok gaurregunera egokitzea beharrezkotzat jo izan da, antxinako jarduera zaharkituak aldenuz eta gaurko gizarteari ondo ez joakozan erabagiak mugatuaz edo kenduaz, esate baterako tronkalaren gorabehera batzuk, edo inoiz sistemea osatzeko derri-gorrezko erabagi batzuk gehituaz, adibidez, gizonezko alargunen eskubideak ugaritzeari, mantenu-beharra autortzeari edo baserrietako errentariak babesteari jago-konean.

Ez da Koderik be idatzi, arlo zibileko erakunde guztiak batuta egindako legea ez da-ta. Legea Konstituzinoaren eta Estatutuaren agindua betetzera mugatzen da, eurotan gure Foru-Zuzenbidea iraunerazo, aldatu eta garatzeko ahalmena autortzen dala, kasu honetan Bizkaikoa. Erakundeak geldierazi beharrean, bizirik eta Bizkaiko gizarteak daukan aurrera joateko borondateak eta beharrezko ikerketa-lanak seguru asko eskatuko daben aldaketei zabalik mantenduko dituan bidetari lotzen gatzakoz Lege honegaz.

Europar araupide zibil desbardin asko egotea, eurentariko batzuk Bizkaiko eta Euskal Herriko erakundeengandik hurrago dagozanak, oso aberasgarria da ziurrik; eta erakundetarikoa batzuk Kode Zibilagaz bat egin barik irautea desbardintasunak egon dagozala erakusten daukan adierazgarria da, aurrez antzean sintesi hobeak egiteko bideak zabaldu leikezana. Kode Zibilean egindako azken barrikuntzei buruz adi egotea komeni da, arlo batzutan Foru-Zuzenbidera asko hurre-ratzen dalako eta harrigarria da Familiaren baserri-us-tiakuntza eta baserriar gazteen Estatutua onartu eban 1981.eko abenduaren 24ko legeak Bizkaiko legeko era-kunderik garratzitsuenak, Kode Zibilean agertu be egi-ten ez ziranak, ia hitzez hitz, bereganatzen ebazala ikustea, esate baterako amankomuneko edo "eskuor-de-bidezko" testamentuak, oinordetza-itunak, familia-ren ondasunak osotasunean eskualdatzea etab.

I. IDAZPURUA
EZARPEN-EREMUA

Foru-Zuzenbidea Bizkaian zein eremutan ezarri behar dan zehaztea Zuzenbide honen izateari berari ja-gokon gai oinarritzotzat hartu da. Baina, aldi berean, arazo horrek konponbide gaxa dauka, Uriek eta Elei-zateek historian zehar izan dituen gora-beherak dira-la-ta bakotxaren barrutia bereiztea ez dalako bat be erreza, batez be, eta hau oso garratzitsua da, Uriei

ANÁLISIS DE LA LEY

LIBRO I
DERECHO CIVIL FORAL DE BIZKAIA

El derecho a elaborar su propia legislación lo poseyó Bizkaia en todo tiempo y solamente desapareció con la decadencia del régimen foral. La legislación foral estuvo en vigor en su plenitud hasta la Compilación de 1959, que en muchos aspectos la recortó y limitó. El derecho a recuperarla en su sentido tradicional debemos considerarlo como un "derecho histórico" amparado en la Constitución, un derecho histórico que fue fuertemente afectado por la Compilación realizada en tiempos de dictadura.

Ha parecido necesario acomodar estas disposiciones a nuestro tiempo, eliminando los formalismos anacrónicos y limitando o excluyendo las disposiciones que no se acomodan a la sociedad actual, como algunos aspectos de la troncalidad, e incluso introduciendo, en algún caso, disposiciones imprescindibles para completar el sistema, como ocurre con la ampliación de los derechos del cónyuge viudo, el reconocimiento del derecho de alimentos o la protección de los arrendatarios de fincas rústicas.

No se ha redactado un Código en el sentido de una ley totalizadora de todas las instituciones conocidas en materia civil, sino que la ley se limita a cumplir el mandato constitucional y estatutario que permite la conservación, modificación y desarrollo de nuestro Derecho Foral, y en este caso el vizcaíno. En realidad, iniciamos un proceso que no va a anquilosar las instituciones, sino que las va a mantener vivas y abiertas a los cambios que seguramente va a imponer la necesaria tarea de investigación y la decidida voluntad de progreso que alimenta la sociedad vizcaína.

La existencia de ordenamientos civiles muy diversos en Europa, algunos de ellos más cercanos a nuestras instituciones vizcaínas y vascas, es una realidad enriquecedora, y el hecho de que algunas instituciones se mantengan diferenciadas respecto al Código Civil es una nota de contraste que, en el futuro, permite esperar síntesis más perfectas. Conviene fijar la atención en que las últimas reformas del Código Civil suponen, en muchos casos, una aproximación al Derecho Foral, y es sorprendente que la Ley de 24 de Diciembre de 1981, que aprobó el estatuto de la explotación familiar agraria y de los agricultores jóvenes, recoge instituciones esenciales a la ley vizcaína -como los testamentos mancomunados y "por comisario", los pactos sucesorios, la transmisión íntegra del patrimonio familiar, etc.- y desconocidos en el Código Civil.

TÍTULO I
DEL ÁMBITO DE APLICACIÓN

La determinación del ámbito de aplicación del Derecho Foral en Bizkaia ha sido considerada una cuestión básica para la existencia misma de este Derecho y, al mismo tiempo, un problema de difícil solución, dada la evolución histórica de Villas y Anteiglesias y la dificultad de identificar el territorio de cada una de ellas, sobre todo en el punto crucial de la ley

ezgarri jaken lege zibilari jagokonez, Urik gehiengan alde forudunak alde forubakoakaz batera irauten dabelako.

1959. urteko Bildumak nahaste haundiagoa sortu eban bere 2. eta 3. ataletako arau marapilotsuakaz, eta harrezkero gatz egiten da, Urigunetatik kanpo, nor dan foruduna eta nor ez zehaztea.

Gainera, Bildumaren sistemak alde forudunen eta forubakoen lurraldeak behin eta barriro aldatzen ditu. Hori dala-ta, eta Konstituzinoaren 9.3. atalak eskatzen dauan segurtasun juridikoa aintzakotzat hartuta, arau zehatzagoak egin beharra dago. Erizpide hau erabili da Foru-Lege honen 6, 7 eta 8. atalak eta 1go Azken Erabagia idazterakoan, Autonomia-Estatutuaren 10. atalean autortutako legeintzarako baimenean oinarritzen dirala eta forudun lurraldea zein dan ondo zehaztuta itxi gura dabela.

Beste alde batetik, Bildumak balio eta indar barik itxi eban 1630. urteko Konkordia. Konkordia horrek Bizkaiko Uriei baimena emoten eutsen euren barrutian Foru-Legea indarrean izatea eskatzeko, eta horretara jokatu eben Elorriok (1712), Bermeok (1734), Otxandio (1818) eta Areatzak (1825), Forua oso-osoan edo zati baten aukeratuaz. Lege honek barriro jarten dau indarrean 1630.ean konkordatutako araua, baina eguneratuaz (10. atala).

Forua nori ezarri dala-ta, horretan be segurtasun juridiko haundiagoa bilatzen dau legeak, baita bardin-tasun haundiagoa be, oraintsuko epai batzuren bidebakeriak aldendu guran. Epaiok, ulertze-modu oso murrizgarriak erabiliaz, Foru-Legea ezarteko lotura-puntu bi eta inoiz hiru be eskatzera heldu ziran, Kode Zibilaren Atariko Idazpuruak ezartzen dituan auzietarako arauen aurka eginez. Horretara, inoiz gertatu da seme bati tronkalekotasun-eskubideak ukatzea, bizkaitar herritasuna galdu ebalako. 16. atalak, joera hori zuzenduaz, izaera orokorreko erabagiak hartzen ditu auzietarako oinarritzko arautzat, forubako bizkaitarren estatutuaren berezitasunak beste barik salbuetsiaz.

II. IDAZPURUA TRONKALEKOTASUNA

Bizkaiko Foru-Zuzenbidearen berezitasunik nabarmenena tronkalekotasuna sakon sustraiturik egotea da, horretan ez dago zalantzarik. Hori testamentuzko oinordetzan zein testamentubakoan ikusten da, intervivos edo mortis causa ekintzetan, ordainbidezkoak nahiz dohainezkoak izan. Sustraitze hori gure inguruko herrietan, Añamendialdeko forudun herrialdeak be barruan dirala, ezagutzen dana baino askozaz sakonagoa da.

Hori dala-ta, tronkalekotasunaren erakundeak I. Liburuaren I. Idazpurua hartzen dau, tronkalekotasuna eta bere osagaiak zehaztuz. Aldi berean, bere eraginik ertzekoena argitzeko, eta behar bada mugatzeko, ahalginak egiten dira, erakunde hau gaurrengue bizi-moduaren beharrezanez egokituz.

civil aplicable en las Villas, en las que, en la mayor parte de los casos, subsisten las zonas aforadas con las no aforadas.

La Compilación de 1959, con las complicadas reglas que establecen los artículos 2 y 3, contribuyó a una mayor confusión, hasta el punto de que, a partir de ella, se hace difícil precisar si una persona, fuera del núcleo de las Villas, es o no aforada.

Además, el sistema de la Compilación supone una constante variación de los territorios de la zona aforada y la no aforada, por lo que la seguridad jurídica que reclama el artículo 9.3 de la Constitución obliga a redactar reglas más precisas, y con ese criterio, se han redactado los artículos 6, 7 y 8 de esta Ley Foral y la disposición final 1ª, que se apoyan en la autorización legislativa del artículo 10 del Estatuto de Autonomía y pretenden que el territorio aforado quede perfectamente delimitado.

Por otro lado, la Compilación dejó sin valor ni alcance la Concordia de 1630, que autorizaba a las Villas de Bizkaia a reclamar la vigencia de la Ley Foral en su territorio y en virtud de la cual los municipios de Elorrio (1712), Bermeo (1734), Otxandio (1818) y Areatza (1825), se acogieron al Fuero, en todo o en parte. La presente ley restablece la norma concordada en 1630, pero actualizándola (artículo 10).

En cuanto al ámbito personal de vigencia foral, la ley pretende también una mayor seguridad jurídica e incluso una mayor igualdad, evitando algunas injusticias que se deducen de algunas sentencias recientes, que en una interpretación muy restrictiva llegaron a exigir dos y hasta tres puntos de conexión para aplicar la Ley Foral, anomalía totalmente contraria a las normas conflictuales que establece el Título Preliminar del Código Civil, habiéndose llegado a negar los derechos de troncalidad a un hijo porque perdió la vecindad vizcaína. Rectificando esta tendencia, el artículo 16 remite a las disposiciones de carácter general como norma conflictual básica, dejando simplemente a salvo las peculiaridades del estatuto personal de los vizcaínos no aforados.

TÍTULO II DE LA TRONCALIDAD

La más destacada peculiaridad del Derecho Civil de Bizkaia es, sin duda, el profundo arraigo del principio de troncalidad, que se manifiesta tanto en la sucesión testada como en la intestada, en los actos "inter vivos" o "mortis causa", a título oneroso o lucrativo, y con una fuerza muy superior a la que se conoce en todos los países de nuestro entorno, incluidas las regiones forales de la zona pirenaica.

Ello obliga a dedicar a esta institución el Título II del Libro I, que define la troncalidad y sus distintos elementos, pero al mismo tiempo hace un esfuerzo para aclarar e incluso limitar sus efectos más radicales, adaptando la institución a las exigencias de la vida actual.

Ildo honetatik, tronkalekotasunaren osagai bikotxa, gizasemei lotutakoa eta gauzei lotutakoa, azaltzen da 17. ataletik 20. enera. Gizasemei lotutako osagaia dala-ta barrikuntza bat daukagu, seme-alaba ordeak tronkaleko senideen artean sartzea, Eusko Legebiltzarren 1988.eko martiaren 18ko 6/1988 Legearen arabera. Gauzei lotutako osagaiari buruz, zehaztu egiten dira onibarrak. Zehazketa hori Bilduman erabilitako Kode Zibileko 334. artaleko zerrendea baino hobeto egokitzen jakote tronkalekotasunaren izaerari.

Urilurretan kokaturiko ondasunen ordainbidezko inorentzeetan tronkalekotasuna nahastetsua izan daiteke eta ez jakote baserrialdeetan baizen beharrezkoa eristen, Foruaren oinarritzko helburua baserriaren iraupena dalako. Hori dala-ta, I. Idazpuru hau 114. artalean (IV. Idazpuru) ezarritako arauagaz osatzen da, lehentasunez eskuratzeko eskubideetatik eta saka-eskubidetik salbuetsi egiten dala urilur dana edo izatekotan dana.

III. IDAZPURUA OINORDETZAK

Oinordetzaz III. Idazpururak dihardu, bost Atalburutan banatzen dala.

Azpimarratzekoa da, lehenengo Atalburuan, eskuordeko bidez eginko testamentuaren edo "alkar-poderoso"ren arauketa barria, gure Foru-Zuzenbidearen osagarriak garantzitsuenetarikoa bera. Berorri esker alargunaren eskubideak sendotzea eta familia egokitasunez eratzea bideratzen da.

Arlo horretan, hurrengo honek dira Lege bariariaren oinarriak:

- a) Bizkaitarrek ia euren ezkontza-hitzarmen guztietan alkar-poderoso edo testamentua egiteko poderea erabiltzeko izan daben etenbako ohitureari jarraitu egiten jakote.
- b) Erakunde hori eguneratu egiten da, gaurrengoko gizartearen beharizantetara egokituaz.
- c) Ezkontide eskuordekoaren egoera juridikoa indartu egiten da, Bilduma aurretiko ohitureagaz lotuaz.
- d) Jaraunspenezko oinordetza zentzunez eta ausnartuta egiteko aukerak dirau, behar danean testamentu egokia eginaz, askotan aurrikuspen ezagaitik jazotako testamentu bako oinordetzarik izan ez daiten.
- e) Ondarea zentzun barik eta ekonomiaren aurka sakabanatzea eta zatitzea eragozten da, azken aldiotan emoten diran administrazio-erabagi bariak indartuaz.
- f) Erakunde hau, Alkar-poderoso, idazkera erakargarri hornitzen da, Kode Zibilaren 831. artala erabili leikien forubakoentzat eurentzat be. Kode horren idazkerea aldatuaz joan da, bizkaitarrei eurei jagokenera hurreratzetarako.

En este sentido, se define en los artículos 17 a 20 el doble componente, personal y real, de la troncalidad. La novedad, en el aspecto personal, es la inclusión de los hijos adoptivos entre los parientes tronqueros, siguiendo el sentido de la Ley del Parlamento Vasco 6/1988, de 18 de Marzo, y en el aspecto real se hace una definición de los bienes raíces, que se acomoda más a la naturaleza de la troncalidad que la enumeración del artículo 334 del Código Civil, utilizada por la Compilación.

En las enajenaciones a título oneroso, cuando tienen como objeto los bienes situados en suelo urbano, el principio de troncalidad puede resultar perturbador y no se estima tan necesario como en las zonas rústicas, en las que la conservación de los caseríos es objetivo fundamental del Fuero. Por esta razón, este Título II se completa con la norma incluida en el artículo 114 (Título V), que exime de los derechos de preferente adquisición y de la saca foral el suelo urbano o urbanizable programado.

TÍTULO III DE LAS SUCESIONES

De las sucesiones se ocupa el Título III, que se divide en cinco Capítulos.

Debe destacarse, en el Capítulo I, la nueva regulación del testamento por comisario o "alkar-poderoso", una de las piezas más importantes de nuestro Derecho Foral, que permite crear un fuerte derecho de viudedad y atender a una adecuada organización de la familia.

En esta materia, la nueva ley se fundamenta en los siguientes principios:

- a) Se sigue la tradición constante del pueblo vizcaíno de consignar, en la casi totalidad de sus capitulaciones matrimoniales, esta institución jurídica de "alkar-poderoso" o poder testatorio.
- b) Se le da a esta institución un contenido actualizado y en consonancia con las situaciones ambientales de la sociedad de hoy.
- c) Se refuerza la posición jurídica del cónyuge comisario, enlazando con la costumbre anterior a la Compilación.
- d) Se mantiene la posibilidad de que la sucesión hereditaria se realice de modo razonable y reflexivo mediante el testamento adecuado al momento oportuno, evitando sucesiones intestadas motivadas muchas veces por falta de previsión.
- e) Se evitan desmembraciones y divisiones irracionales y antieconómicas del patrimonio, reforzando así las modernas disposiciones administrativas que se dictan últimamente.
- f) Se redacta el contenido de esta institución de modo atractivo, incluso para los no aforados, que tienen a su alcance aplicar el artículo 831 del Código Civil, cuyas sucesivas redacciones modificadas van acercándolo al propio del pueblo de Bizkaia.

Holan bada, ohituretan oinarritutako barrikuntzak sartzen dira, oinordetzaileak testamentua egiteko gaitasunak eta komisario edo eskuordekoa izendatzekoak osotasunean dirauela, jakineko lege-mugak kontuan izanda. Hurrengoak dira barrikuntzak:

- a) Oinordetzaileari eskuordekoa -komisarioa edo podereduna- izendatzeko gaitasun zabala emoten jako (32. atala).
- b) Izendapena bermatu egiten da, testamentuz zein ezkontza-hitza emenez, horretarako beharrezkoa dala Eskribauak eskuartzea (33. atala).
- c) Oinordekoak izendatzeko gaitasuna bardindu egiten da eskuordekoarentzat eta oinordetzailearentzat (34. atala).
- d) Eskuordekoak hori izateagaitik irabazirik ez izatea beharrezkoa da (39. atala).
- e) Oraingoan beren-beregi zaintzen da banatubako jarauntsiaren segurtasun juridikoa, bere ordezkari nor izango dan arautuaz (40. atala).
- f) Familiaren alde jokatuaz, oraingoan lehenengoz arautzen dira adinbako edo ezgaiei mantenua emon beharri eta tutoretza edo kuradoretza ipinteari jagokezanak be, ekanduetan hori egiteko joerea baegoan-eta (41 eta 42. atalak).
- g) Eskuordekoak bat baino gehiago izan daitezane-ko podere-erabilera arautzen da (43. atala).
- h) Poderea erabilteko epea eskuzabaltasunez hartzen da, beti erabili izan dan moduan, epeok mugatuegi bihurtzen dabezan agindukeriazko erabakiak alde batera itxiaz (44. atala).
- i) Berariaz arautzen da alkarpoderosoak ekintza baten baino gehiagotan gauzatzeko ahalmena, erakunde hori eten barik erabili ahal izateko eta alkarren aurkako erizpide itxiek eragindako egoera arazotsurik izan ez daiten (45. atala).
- j) Poderearen erabilera-moduak 46. eta 47. atalean arautzen dira, eskuordeko ezkontideak, podere hori bere testamentuan gauzatu bada, poderearen erabilera ezeztatu egin leikeala.
- k) Amaitzeko, beren-beregi arautzen dira poderea iraungiteko arrazoiak, gaurregun izan daitekezan egoera juridikoak aintzakotzat hartuta (48. atala).

Idazpuru berorretako laugarren sailean testamentua alkarregaz edo ermandadean egitea arautzen da, behinolako Bildumak batzen ez ebana. Testamentu-erakunde hori, Aragoi eta Nafarroan zaindu zana eta gaurregun-ko Kode batzutan indar-indarrean dirauana, Bizkaiko Zuzenbidearen berezitasunetarikoa bat da, foru-legeek aldarrikatu eta ohitureak eten barik zaindutakoa. Gainera, horri iraunerazotea askatasun zibilaren eskakizuna be bada.

Alkarregaz edo ermandadean egindako testamentuaren eragozpenik handienetarikoa, legelari batzuren

Y, consecuentemente, respetándose en toda su amplitud y con las consabidas limitaciones legales la capacidad de testar del causante y la designación de comisario o apoderado, se introducen novedades apoyadas en la costumbre:

- a) Se dota al causante de amplia competencia para la designación de comisario o apoderado (artículo 32).
- b) Se garantiza el nombramiento, exigiendo la intervención del Notario, bien en testamento, bien en capitulaciones matrimoniales (artículo 33).
- c) Se equipara la capacidad para el otorgamiento del comisario y del causante (artículo 34).
- d) Se exige desinterés por parte del comisario (artículo 39).
- e) Se vela, ahora de modo expreso, por la seguridad jurídica de la herencia yacente, regularizando la representación de la misma (artículo 40).
- f) En la defensa de la familia, se regulan por primera vez las obligaciones ya intuitas en la costumbre de alimentos de los menores e incapaces y las relativas a la tutela y curatela (artículos 41 y 42).
- g) Se regula el ejercicio del poder para el caso de pluralidad de comisarios (artículo 43).
- h) El plazo del ejercicio del poder se regula con la amplitud característica con que siempre se ha utilizado, frente a decisiones autoritarias que constriñen los plazos (artículo 44).
- i) Con arreglo a la aplicación constante de esta institución, y evitándose situaciones embarazosas de criterios cerrados de contenido contrario, se regula expresamente la posibilidad del uso en varios actos de "alkar-poderoso" (artículo 45).
- j) Los diversos modos de uso del poder se regulan en los artículos 46 y 47, con la peculiaridad de que el comisario cónyuge podrá revocar el uso del poder si éste se hubiera formalizado en su propio testamento.
- k) Finalmente, se regula de modo expreso, recogiendo las actuales situaciones jurídicas que pueden darse, la extinción del poder (artículo 48).

En la sección cuarta de este mismo título se regula el testamento mancomunado o de hermandad, que la Compilación ignoró. Esta forma de testamento, que fue mantenida en Navarra y Aragón y que vive vigorosamente en algunos Códigos modernos, es una de las particularidades del Derecho de Bizkaia que las leyes forales proclamaron y que la costumbre ha mantenido sin interrupción. Por añadidura, su conservación es una exigencia del principio de libertad civil.

El mayor inconveniente del testamento mancomunado, según algunos juristas, se refiere a su irrevoc-

eritxian, aldatu ezinezkoa izatean datza. Bizkaiko Legeak asko mugatzen eban aldaezintasun hori, ezkontide testamentu-egileetarikoren bat testamentu hori egin osteko urtebete eta egun bateko epe barruan hil ezkerobaino ez eban mantentzen-eta (XXI. Idazpuruko I. Legea). Erakunde hori aitatutako muga horregaz batzen da legean, adituek ekarritako beste aurrerapen batzuk jaso beharretik eratorritako beste zehaztasun batzuk gehituaz, aldatu ezinezkotasuna bienak izandako ondasunenei buruz erabagitera mugatuaz, ondasunok diralako hori holan izatearen benetako arrazoa (49. ataletik 52.era).

Derrigorrezko ondorengotza I. Idazpuru horretako II. Atalburuan arautzen da. Berori idazterakoan ahalegin berezia egin da foruzko ondorengotza gaurregungo gizartearen beharrezanez egokitzeko, eta alde horretatik hurrengo honek azpimarratu geinkez:

- a) Aurrekoei jagokena testamentu-egilearen ondasunen erdia izateraino gixitzen da, bostetik lau izan beharrean (56. atala).
- b) Nabarmen gehitzen dira ezkontide alargunaren eskubideak. Bilduman autortzen jakon gozamen-eskubide hain murriztu hori handitu egiten da, alarguna ondorengoakaz eta aurrekoakaz batera badago ondasun guztien erdira heltzeraino, eta hirutik bira alboko senideakaz batera badago. Besterik ezean baino ezin leike gozamenik izan tronkaleko ondasunetatik, eta holakorik jazoko balitz, onartzen da ondasunok dirutan emondako kapitalaren truke aldatzea be (58. atala). Edoze-lan be eskubideok iraungi egiten dira ezkontzaren banantze, baliobakotze edo dibortzioa dala-ta ezkontzak porrot egin ezkerob.

61. atalean ondasun guztien gozamina ezkontideari izteko aukerea be onartzen da.

- c) Oinordekoak baztertzeko egin beharrekoak erreztu egiten dira (54. atala).
- d) Ondorengoen mantenu-eskubidea arautzen da (66. atala), seme-alaba moten arteko bereizkuntzarik egin barik, seme-alaba ordeak be horren barruan sartuaz ondorio guztietarako (53. atala).
- e) 62. atalak Foru-Bildumaren hutsunea beteten dau seniparteari jagokon zatia atarateko arauak emonaz, baita dohaintzak zenbatgarritzekoak eta jarauntsira itzuli beharreko ondasunak zehaztekoak be.

Testamentu bako ondorengotzan (III. Idazpuruko III. Atalburua) barrikuntzarik garrantzitsuena seme-alaba moten arteko bereizkuntza kentzea da (67. atala).

Ordezkatza-eskubidea, gaurregun beherantzako belaun-lerroari mugatuta dagoana, alboko belaun-lerroa be zabaltzeari ondo eritxi jakob, baina neba-arrebak neba-arreben seme-alabekin batera diranean baino ez (72. atala). Holan jokatuta lehenengo eranskinaren egitasmoa atondu eban batzordearen erizpideari jarrai-

cabilidad, pero la ley de Bizkaia la limitaba mucho, pues únicamente la mantenía si alguno de los cónyuges otorgantes fallece dentro del año y día siguiente a su otorgamiento (Ley I del Título XXI). Con esta limitación se recoge en la nueva ley esta institución, añadiendo otras precisiones derivadas de la necesidad de recoger los avances introducidos por la doctrina, y, en todo caso, limitando la irrevocabilidad a los actos de disposición sobre bienes comunes que son los que realmente la justifican (artículos 49 a 52).

La sucesión forzosa se regula en el Capítulo II de este Título III. En su regulación se ha hecho un gran esfuerzo por acomodar la sucesión foral a las exigencias de la sociedad actual, y en este sentido es de destacar:

- a) La reducción de la cuota de los ascendientes a la mitad de los bienes del testador en lugar de los cuatro quintos (artículo 56).
- b) El notable incremento de los derechos del cónyuge viudo. El derecho limitadísimo de usufructo que le reconoce la Compilación, se amplía a la mitad de todos los bienes cuando el viudo concurre con ascendientes o descendientes, y a los dos tercios si concurre con colaterales. Sólo en último término el usufructo puede recaer sobre bienes troncales, y en tal caso se admite la posibilidad de su conmutación por un capital en efectivo (artículo 58). Naturalmente, estos derechos se extinguen en los casos de quiebra del matrimonio por nulidad, separación o divorcio.

En el artículo 61 se admite también la posibilidad de legar al cónyuge el usufructo universal de todos los bienes.

- c) Se simplifican las formalidades del apartamiento (art.54).
- d) Se regula el derecho de alimentos de los descendientes (artículo 66), sin hacer distinción entre las clases de filiación, incluyendo, a todos los efectos, los hijos adoptivos (artículo 53).
- e) El artículo 62 cubre el vacío de la Compilación Foral dictando normas para el cálculo de la legítima, y la computación y colación de donaciones.

En la sucesión "ab intestato" (Capítulo III del Título III) la innovación más importante es también la supresión de la distinción entre las diversas clases de hijos (artículo 67).

El derecho de representación, limitado actualmente a la línea descendente, se ha considerado oportuno extenderlo a la línea colateral, pero únicamente en el caso de concurrencia de hermanos con hijos de hermanos (artículo 72). Se sigue así el criterio de la comisión redactora del primer proyecto del apén-

tzen jako, ekanduak behin eta barriro erakusten ebanori aintzakotzat hartuta.

Testamentu bako jarauntsietan, zuzeneko edo al-boko belaun-lerroan laugarren belaunaldira heldu eta senitartekorik ez badago, jagoken Foru Aldundiaren eskuetara igaroko da (73. atala).

IV. Atalburuan, eta "oinordetza-itunak" izenburuean, itun-bidezko oinordetza-era batzuk arautzen dira, bizkaitarren artean ondo sustraituta egon arren gaurregungo Bilduman II. atalean aitatu baino egiten ez diranak, arlo horretan gehiago sakondu barik. Oinordetza-itunok dirala-ta adituak gero eta aldekoago agertu ezeze, Kode Zibila bera be, alkarren ostean egindako aldetetan, hasieran holakoak eragozteko eukan erizpide gogorra bigunduaz joan da.

Askatasun zibilagazko begiruneak, foruzko lege eta ekanduen eragile danak, eta Bizkaian agiri-bidez jatorkuzanetan baserria eskualdatzeko erarik erabiliena oinordetza-itunak izateak, beharrezko egiten dabe itunok legez arautzea, Bildumaren II. atalak egiten eban aitamen hutsa nahikoa ez dala.

Ezkontza-hitzaermenak oinordetza-itunik garrantzitsuenak dira, jakina, baina dohaintzarako eskriturak be sarri egiten dira eta holan batu da egitasmoan (74. atala).

Itun motarik garrantzitsuenak be aztertu egin behar izan dira (non agertzen diran alde batera itxita) eta horregaitik ardura bereziaz arautzen da ondasunak unean bertan zein izendatzailea hil ostean eskualdatuaz egindako ondasun guztien dohaintza, baita jakineko ondasunena be (76. ataletik 78.era).

Baserria edo baserri-ustiakuntzaren bat eskualdatzen danean sarri askotan agertzen da dohaintza-emole eta hartzaileen arteko loturea, hau da, ezkontide gazte eta ezkontide zaharrak alkarregaz bizi eta osatutako familia-alkartea, eta ezinbestekoa zan hori be aintzakotzat hartzea. Lege-erakunde hori be sartu gura izan da dirauan ekanduari jarraituaz (82. atala).

Inorentzako gordeteak eta itzultzeak II. Idazpuru horren V. Atalburuan arautzen dira "Oinordetzeko erei buruzko baterako erabagiak" izenburuean. Lehenengo eta behin Kode Zibilean, 811. atalean, agertzen dan inorentzako gordetea batzen da, baina Bizkaian izan leiken erabilerara egokituta, hau da, tronkaleko ez diran ondasunei mugatuta (84. atala).

85, 86 eta 87. ataletan ezkontza-aldian irabazitako ondasunak inorentzako gordetea (85. atala), forukomunikazinoa desagitean aurrez hildako ezkontidearen ondaretik etorritako tronkaleko ondasunak (86. atala) eta ezkontzagaitik edo ezkonsarizat emondako ondasunak (87. atala) batzen dira, aldaketa txikiakaz.

Era berean, tronkaleko ez diran ondasunetarako, inorentzako gordetea sartzen da 88. atalean, Kode Zibileko 968. atalean agertzen danaren parean joanda.

dice, que invocaba una reiterada práctica consuetudinaria.

A falta de parientes en la línea recta o en la colateral hasta el cuarto grado, la sucesión intestada se refiere a favor de la Diputación Foral correspondiente (artículo 73).

En el Capítulo IV, y bajo el epígrafe "de los pactos sucesorios", se regulan diversas formas de sucesión contractual, de gran arraigo en la vida vizcaína, que solamente aparecen aludidas en el artículo 11 de la Compilación actual, sin hacer ningún desarrollo de esta materia. No solamente la doctrina se muestra cada día más abierta a los pactos sucesorios, sino que el propio Código Civil, en las sucesivas reformas, tiende a suavizar su rígido criterio prohibitivo inicial.

El principio de libertad civil, inspirador de las leyes y costumbres forales, y los antecedentes documentales de Bizkaia, en los que los pactos sucesorios son la forma más frecuente de transmisión del caserío, obligan a su regulación legal, no bastando con la simple indicación que hacía el artículo 11 de la Compilación.

El caso más importante de sucesión pactada es, por supuesto, el que se establece en capítulos matrimoniales, pero también es frecuente en escritura de donación, y así se recoge en el proyecto (artículo 74).

Se han tenido que analizar también los tipos de pacto más importantes (al margen del instrumento en que consten), y por ello se regulan con cierta atención la donación universal con transmisión de bienes de presente o con eficacia "post mortem", así como las donaciones de bienes singulares (artículos 76 a 78).

Resultaba también ineludible hacer referencia en este lugar a la comunidad de vida o asociación familiar que, muy comúnmente, se establece entre donantes y donatarios, el matrimonio joven y el matrimonio viejo, cuando se transmite un caserío u otra explotación rural. Se ha tratado de recoger esta institución atendiendo a los usos vigentes (artículo 82).

Las reservas y reversiones se regulan en el Capítulo V del mismo Título III, bajo el epígrafe de "Disposiciones comunes a las distintas formas de suceder". En primer lugar se recoge la reserva del artículo 811 del Código Civil, pero acomodándola a la aplicación que puede tener en Bizkaia, esto es, limitada a los bienes no troncales (artículo 84).

Los artículos 85, 86 y 87 recogen, con leves modificaciones, la reserva relativa a los bienes ganados durante el matrimonio (artículo 85), la que se refiere a los bienes troncales recibidos del patrimonio del cónyuge premuerto al disolverse la comunicación foral (artículo 86) y la de los bienes donados o dotados para un matrimonio (artículo 87).

Asimismo, se incorpora en el artículo 88 una reserva, paralela a la del artículo 968 del Código Civil, respecto a los bienes no troncales.

90. atalaren arabera, gordetzaileak gordetakoaren hartzaileen artean izendatu leike oinordekoa. Atalburua 92. atalean amaitzen da, mantenu beharraz emondako ondasunak itzultzeko eskubidea arautzen dala bertan.

IV. IDAZPURUA EZKONTZAREN ONDASUNEN JAURPIDEA

Horixe da IV. Idazpuruaren gaia.

Eusko Legebiltzarraren martiaren 18ko 6/1988 Legearen erizpideari jarraituaz, ezkontzaren ondasunen jaurpidea, ezkontza aurretik zein ostean, ituntzeko edo berori askatasunez aldatzeko eskubidea autortzen da, foru-sistemearen eragile dan askatasun zibilagaz neurri handi baten bat datorrena (93. atala).

Andrazkoen eta gizonezkoen arteko edozein bazterkeria ezabatu egiten da, ezkontideek herritasun bera ez daukenean ondasunen jaurpidea zehazteko kasuan bertan be bai (94. atala). Legearen atal hori bat dator Kode Zibilararen oraintsuko aldaketak herritasun zibilararen arloan emondako erizpideagaz.

Foru-komunikazioaren legezko jaurpidea amaitu egiten da ezkontideak banandu zein dibortziatu egiten badira edo ezkontza baliobakotzat jo ezkerro, baita itunez erabagi ezkerro be (95. atala).

Arauren batzuk bereiztu egiten dabez irabazpidezko ondasunak eta ezkontide bakotzak ekarritakoak, eta euren lege-jaurpidea zehazten dabe (97.etik 102. atalera), ondasunei buruz erabagiteko ezkontide bien foruaren araberrako oneritxia ezinbestekoa dala (99. atala).

Ezkontza ezkontideren bat hiletagaitik amaitzen danean seme-alabak bienak izatea edo ez izatea bereizten dauan foru-arauari jarraitzen deitso lege honek.

Bien seme-alabak egon ezkerro, finkatu egiten da foru-komunikazioa (104. atala) eta jaraunspenezko erkidego egiten da alargunaren eta hildakoaren seme-alaben artean ondasunak banatu eta esleitu arte; edozelan be eskuordeko izendatutako ezkontideak ondasun guztien erdia esleitu leikio bere buruari (106. atala) eta, horrez gainera, ondasuntza guztiaren gozamina be izango dau (105. atala).

Ezkontzaren banantze, baliobakotze edo dibortzio-epairen bategaitik ezkontza amaitu ezkerro edo ezkontide bien seme-alabarik ez bada, foru-komunikazioa ezabatu egiten da holakoetarako irabazpidezko jaurpidean erabilitakoaren antzeko sistemeari jarraituaz (109. atala). Dana dala, azken kasu horretan, foru-tradizinoan ondo sustraitutako eskubide batzuk oraindik be baditu alargunak (110. atala).

V. IDAZPURURA LEHENTASUNEZ ESKURATZEKO ESKUBIDEAK

Legegileak arreta berezia ipini behar dau gai honetan, foru-sistemeak jasaten dituan kritiken arrazoietariko bat izaten dalako, saka-eskubidea espekulazio

El artículo 90 admite la posibilidad de que el reservista pueda designar sucesor entre los reservatarios. Y cierra el capítulo el artículo 92, regulando el derecho de reversión de los bienes donados con carga de alimentos.

TÍTULO IV DEL RÉGIMEN DE BIENES EN EL MATRIMONIO

A este tema se dedica el Título IV.

Siguiendo el criterio de la Ley del Parlamento Vasco 6/1988, de 18 de marzo, se declara el derecho, muy acorde con la libertad civil que inspira el sistema foral, de pactar el régimen económico matrimonial o modificarlo libremente, antes o después de su celebración (artículo 93).

Se elimina toda discriminación por razón de sexo, incluso cuando se trata de determinar el régimen de bienes en el caso de que los cónyuges tengan vecindad diferente (artículo 94). El criterio de este artículo de la ley coincide con la reciente reforma del Código Civil en materia de vecindad civil.

El régimen legal de comunicación de bienes queda extinguido en los casos de separación, nulidad o divorcio, y también mediante pacto (artículo 95).

Varios preceptos aclaran la distinción entre bienes ganados y bienes procedentes de cada cónyuge y precisan su régimen jurídico (artículos 97 a 102), manteniéndose la exigencia foral del consentimiento conjunto de ambos cónyuges en los actos de disposición (artículo 99).

En los supuestos de disolución del matrimonio por muerte de uno de los cónyuges, la presente ley sigue la norma foral que distingue entre el supuesto de que haya hijos comunes y el de que no los haya.

Habiendo hijos comunes, la comunicación se consolida (artículo 104) y se establece una comunidad hereditaria entre el viudo y los sucesores del premuerto hasta la división y adjudicación de los bienes; pero el cónyuge designado comisario puede adjudicarse la mitad de todos y cada uno de los bienes (artículo 106) y tendrá además el usufructo de todo el caudal (artículo 105).

En los casos en los que el matrimonio se disuelva por sentencia de nulidad, separación o divorcio, o cuando no haya hijos comunes, la comunicación se disuelve por un sistema similar a la sociedad de gananciales (artículo 109), aunque, en el último caso, el viudo conserva algunos derechos de honda raigambre foral (artículo 110).

TÍTULO V DE LOS DERECHOS DE ADQUISICIÓN PREFERENTE

Este tema merece una atención especial del legislador, pues suele ser uno de los motivos de crítica del sistema foral, ante los abusos que pueden darse cuando

hutsarako erabiltean egon daitekezan gehiegikeriakaitik. Horregaitik bada, txarrerako eragina daukien horrelako batzuk mugatu egiten ditu legeak, eta tronkaleko eskubideak erabiltea be erreztu bide batez, tronkaleko ondasunak tronkaleko familian irautea baino izan ez dai-ten eskubideon foruzko helburu bakarra.

Helburuok kontuan izanda barrikuntza garrantzitsuak egiten dira, lehenengo eta behin lehentasunez eskuratzeko eskubidedunei eta eskubideonpeko ondasunei eraginez:

- a) Eskubidedunoi buruz, 126. atalak lehentasunez eskuratzeko eskubidea autortzen deutse berrogei urtetik gorako kontratua dauken errentariei, alboko belaun-lerrokoei baino lehentasun handiagoa emonaz.

Sustraituen dagoan ohituretariko bat errentariak berak gozatzeko daukan eta eskualdatu be egin leiken errentari-eskubidea da, batzutan eskubide horren ondorengo nor izango dan ezkontza-hitzarmen edo testamentu bidez adierazo leikeala. Eskubide hori oso caguna da gure ekanduzko Zuzenbideta aztertu dabenen artean, Bilduman batu ez zan arren. 1918.ean Oñatin izandako Eusko Ikaskuntzaren Biltzarrak be eskatu egin eban berrogei urtetik gorako kontratua euen errentariei zabaltzea saka-eskubidea. legeonek batu egiten dau eskari hori, gaurregungo gizar-tearen beharrianakaz bat datorrena.

- b) Lehentasunez eskuratzeko eskubidepeko ondasunei jagokenean, 114. atalak kanpoan izten ditu urilurretan edo urilur izateko dagozanetan kokatutako funtsak, horrela eskubide hori erabiltean sarrien jazo leitekean gehiegikeria-arrazoia alden-tzen saiatuz, indarrean izten dauala eskubide hori famili izaereagaz sakon lotuta dagoan lekuetan.

Tronkaleko ondasunak inorendu aurretik forudeiak egin behar izango dira. Foruan esaten zanez, ondasunok inorentzeko asmoa agertzea eta eurok senideei eskeintzea zan deion helburua. Bildumak helburu hori, zelanbait, aldatu egin eban, salneurria eta baldintzak zehaztea eskatuz. Saldu izana baliobakotzat joteko eta balioespenaren arabera esleitzeko aukerea egoanez, behar bada tirabira gogorren poderioz daborduko hartzartuta egoan salmenta hondatu eitekean.

Lege hau barriro lotzen jako foru-sistemari. Inorentzaileak bere saltzeko asmoa agertzen dau eta dei horri erantzuten deutesen senideek balioetsitako salneurrian erosiko dabela agintzen dabe. Edozelan be, salneurria iragarrita badago, onartu egin leikie (118. atala). Deia inork ez badeutso erantzuten, jabeak edonori saldu leikio urtebeteko epe barruan (120. atala).

Deiok, Eskribauak egiaztatuta, Udaletzeko iragarki-lekuan ipiniko dira eta, elizan be agertzeak zabal-kundea hobatu leikeanez, bertan be ipinteko baimena emoten jako Eskribauari (116. atala).

se utiliza el derecho de saca con fines de pura especulación. Por esta razón, esta ley se ocupa de restringir en algunos aspectos tales efectos perniciosos, al mismo tiempo que simplifica el ejercicio de los derechos troncales para lograr que se ajusten únicamente a la finalidad foral de mantener el bien troncal en la familia troncal.

Con estos propósitos se establecen innovaciones importantes que afectan, en primer término, a los titulares y con objeto de los derechos de adquisición preferente:

- a) En cuanto a los titulares, el artículo 126 extiende el derecho de preferente adquisición a favor del arrendatario cuyo contrato tenga más de cuarenta años de vigencia, con preferencia sobre parientes colaterales.

Una de las más arraigadas costumbres es la que permite al arrendatario disfrutar e incluso transmitir su derecho de arrendamiento, otorgando en algunos casos capitulaciones o testamentos en los que designa sucesor. Este derecho es bien conocido entre los tratadistas de nuestro Derecho consuetudinario, aunque no se haya recogido en la Compilación, pero ya el Congreso de Estudios Vascos de Oñate de 1918 solicitaba que se extendiese al arrendatario, con más de cuarenta años de posesión en el arriendo, el derecho de saca foral. La presente ley atiende a esta demanda, tan acorde con las exigencias sociales de hoy.

- b) En cuanto al objeto del derecho de adquisición preferente, el artículo 114 excluye las fincas sitas en suelo urbano o urbanizable programado, con lo que se trata de evitar la causa más importante de posible abuso de este derecho, manteniéndolo vigente en los lugares en que tiene su profundo sentido familiar.

La enajenación de bienes troncales requiere la previa utilización de los llamamientos forales, que, conforme al Fuero, eran el anuncio de la voluntad de enajenar y la oferta de los bienes a los parientes. La Compilación desvirtuó en algún modo esta finalidad exigiendo la notificación del precio y condiciones, lo que, dada la posibilidad de pedir la nulidad de la venta y la adjudicación por el precio de tasación, puede ser un medio de desbaratar una venta ya consensuada y quizá lograda tras fuerte negociación.

La presente ley vuelve al sistema foral. El enajenante anuncia su voluntad de vender y los parientes que acuden al llamamiento se comprometen a comprar por el precio de tasación, si bien, en el caso de que se haya anunciado el precio, podrán aceptarlo (artículo 118). Si nadie concurre al anuncio, el propietario puede vender la finca libremente en el plazo de un año (artículo 120).

Los llamamientos, bajo la fe notarial, se publican en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, pero, dado que el anuncio en la iglesia parroquial puede ser un medio mejor de publicidad, se autoriza al Notario para que los publique también en la iglesia (artículo 116).

Onibarra eskuratu gura dagian tronkalekoak diru-bernea emon beharko dau, bere kopurua eta ondorioak 117. eta 119. ataletan zehazten dirala.

Inorentzea deirik barik egiten danean, tronkaleko senideek saka-eskubidea daukie, horren bitartez salmenta baliobakotzat jo eta funtsa bidezketasunez baliotsita esleitu dakiela eskatu leikiela. Lege honek eskubide hori erabilteak ekarri leikezan ondorioak arautzen ditu eta, batez be, inorentzailea, saka-eskubidea eskatzen dauan tronkalekoa eta baliobakotzat emon dan salmentako eroslearen arteko hartu-emonak (123. atala). Baliobako aldarrikatzeko jardunbidea autormenezko auzibide arruntaren arabera egingo da, Euskal Estatutoaren 10.6. atalak foruzko gaitan auzibidezko arauak emoteko bideak jarri eta horretarako baimena emoten dau-eta.

VI. IDAZPURUA BIDE-ZORRAK

Iraun-legeei buruz Foruak eukan Idazpurua Bil-dumak ez eban jaso eta horregaitik idatzi da Idazpuru hau. Ez jasotze horrek, eta Kode Zibilaren arabera erabili izanaren iraupen hutsak bide-zorrik izatea ekar-ten ez dauanez (539. atala), makina bat auzi eragin dau 1959. urtetik aurrera, eurotan antxinatik erabilitako bi-deetatik igaroteko eskubideak ukatu egin dirala. Lege honen 128. atalak barriro hartzen dau aintzakotzat erabili izanaren iraupenagaitiko zorra, baina foruaren epea, hamabost urtekoa, luzatu egiten dau Kode Zibi-laren berezkoa dan hogeit urtekora arte. Aldi berean, beste arau bi emoten dira 129. eta 130. ataletan, auzigai diran arazorik garratzitsuenei urtenbidea emoteko.

II. LIBURUA ARABAKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

- 2.- Eskuordekoari heriotzea, ezintasuna edo ezgaitasuna etorri jakolako.
- 3.- Eskuordekoa ezkontidea bada, testamentu-poderea egin ostean ezkontzaren banantze, baliokotze edo dibortzio-eskea egin daitenean.
- 4.- Eskuordekoa ezkontidea izanda, hau barriro ezkondu daitenean, beste bategaz ezkondu-bizimodua daroanean edo ezkontzatik kanpo seme-alabarik euki dagiancan, testamentu-egileak besterik adierazo ez badau behintzat.
- 5.- Uko egiteagaitik.
- 6.- Jaraunsteko ezgaitzen daben gaiztakerietakoren bat egiten badeutso eskuordekoak oinordetzaleari edo bere ondorengoei.
- 7.- Poderean bertan agertzen dan beste arrazoren bategaitik.
- 8.- Podere-emoleak ezeztatuta.

4. SAILA

Ermandadeko edo alkarrekiko testamentua

49. atala.-

Senar-emazteek biek batera erabagi leikie euren ondasunei buruz testamentua alkarregaz edo ermandadean eginda.

Testamentu hori Eskribau aurrean baino ezin egin leiteke.

50. atala.-

Alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua ezeztatu edo aldatu egin leikie senar-emazteek biek batera, Eskribau aurrean egindako beste testamentu edo oinordetza-itun batez.

51. atala.-

Senar-emazteetariko batek be ezeztatu lei bere aldetik alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua, besteari modu egiazkoan jakinerazota. Hori barik, ezeztapenak ez dau indarrik izango.

Alde batak alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua edo bere ataletakoren bat ezeztatzen badau, testamentu osoa geratuko da indargalduta.

52. atala.-

Senar-emazteetariko bat alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua egin eta urtebete baino lehenago hiltzen bada, alargunak ezin izango dau ezeztatu bion ondasunen gaineko erabagirik.

Artículo 48.-

El poder testatorio se extinguirá:

- 1.- Al expirar el plazo establecido para su ejercicio.
- 2.- Por muerte, imposibilidad o incapacidad sobrevenida al comisario.
- 3.- En el caso de cónyuge-comisario, por la presentación de la demanda de separación, divorcio o nulidad matrimonial después de otorgado el poder testatorio.
- 4.- Cuando el cónyuge-comisario contraiga ulteriores nupcias, lleve vida marital de hecho o tenga un hijo no matrimonial, salvo que el testador hubiere dispuesto expresamente lo contrario.
- 5.- Por renuncia.
- 6.- Por incurrir el comisario, para con el causante o sus descendientes, en alguna de las causas que dan lugar a la indignidad para suceder.
- 7.- Por las causas previstas en el propio poder.
- 8.- Por revocación.

SECCIÓN 4ª .

Del testamento mancomunado o de hermandad

Artículo 49.-

Los cónyuges podrán disponer conjuntamente de sus bienes en un solo instrumento, mediante el testamento mancomunado o de hermandad.

Este testamento sólo podrá ser otorgado ante Notario.

Artículo 50.-

El testamento mancomunado podrá ser revocado o modificado conjuntamente por ambos cónyuges, mediante otro testamento o pacto sucesorio posterior otorgado ante Notario.

Artículo 51.-

También podrá ser revocado unilateralmente el testamento de hermandad por cualquiera de los cónyuges, siempre que notifique al otro en forma auténtica la revocación, sin cuyo requisito ésta no surtirá efecto.

La revocación unilateral del testamento mancomunado, o de cualquiera de sus cláusulas, hará ineficaces todas sus disposiciones.

Artículo 52.-

Si uno de los cónyuges fallece dentro del año siguiente a la fecha en que otorgaron el testamento de hermandad, el sobreviviente no podrá revocar las disposiciones que recayeren sobre los bienes comunes.

II. ATALBURUA DERRIGORREZKO OINORDEKOAK

53. atala.-

Derrigorrezko oinordekoak honako hurrenkerearen arabera deituak izango dira, tronkalekoetarako aginduta dagoanaren kalte barik:

- 1.- Seme-alabak, ordekoak barruan dirala, eta gainontzeko ondorengoak.
- 2.- Gurasoak eta beste aurrekoak.

54. atala.-

Testamentu-egileak askatasun guztiaz banatu leikez derrigorrezko oinordetza osatzen dabenez ondasunak aurreko atalean aitatutako lerro bakotzeko oinordekoen artean, edo eurentarik bakarra aukeratu besteak baztertuta, baita belaun-maila urrinagokoa hurragokoa baino gurago izan be.

Derrigorrezko oinordekoak inongo beren-beregi-ko bazterketa-esamolde barik baztertu leitekez, beti be testamentu-egileak oinordetza barik lagateko borondatea argi erakutsi badau.

Baztertu bako ondorengo baten ondorengoak haren ordezkari dira oinordetzan. Bestela, gura ez dala testamentuan aiatatu bariko inor balego, gitxien hartu dauan belaun-mailabereko ondorengoaren besteko zatia eskatzeko eskubidea eukiko leuke.

55. atala.-

Testamentu-egilearen ondasun guztien lau bostenek osatzen dabe ondorengoaren senipartea.

Beste bostena askatasunez banatu leiteke, horretarako tronkaleko ez dan nahiko ondasunik balego.

56. atala.-

Aurrekoen senipartea testamentu-egilearen ondasun guztien erdiak osatzen dau. Beste erdia askatasunez banatzekoa da, tronkaleko ondasunak ez badira behintzat.

57. atala.-

Tronkaleko ondasunei jagokenean, belaun-lerro bakotzeko tronkaleko aurrekoak bakotxaren belaun-lerrotik datozenetarako izango dira oinordeko, 20. ataleko 3. zatian agindutakoaren kalte barik.

Tronkaleko aurrekorik ez balego, testamentu-egileak izendatutako tronkaleko alboko senideak izango dira oinordeko tronkaleko ondasunetan eta aiatatu bakoak isilbidez baztertuta dagozala ulertuko da. Alde honetatik alboko senideei banaturiko ondasunek ez dabe gitxituko testamentu-egileak askatasunez banatu leikean zatia.

CAPÍTULO II DE LA SUCESIÓN FORZOSA

Artículo 53.-

La sucesión forzosa, sin perjuicio de lo dispuesto para la troncalidad, se defiende por el siguiente orden:

- 1.- A los hijos, incluso los adoptivos, y demás descendientes.
- 2.- A los padres y demás ascendientes.

Artículo 54.-

El testador podrá distribuir libremente los bienes que integran la sucesión forzosa entre los sucesores comprendidos en cada una de las líneas a que se refiere el artículo anterior, o elegir a uno solo de ellos, apartando a los demás, e incluso preferir al de grado más remoto frente al de grado más próximo.

Los sucesores forzosos podrán ser excluidos sin fórmula especial de apartamiento, siempre que conste claramente la voluntad del testador de separarlos de su sucesión.

Los descendientes de otro descendiente no apartado representan a éste en la sucesión del ascendiente. En otro caso, la preterición no intencional dará derecho al preterido a reclamar una cuota igual a la del sucesor de igual grado menos favorecido.

Artículo 55.-

La legítima de los descendientes se halla constituida por los cuatro quintos de la totalidad de los bienes del testador.

El quinto restante es de libre disposición, si hay bienes no troncales suficientes para cubrirlo.

Artículo 56.-

La legítima de los ascendientes se halla constituida por la mitad de todos los bienes del testador. La otra mitad es de libre disposición, siempre que no sean troncales.

Artículo 57.-

Los ascendientes tronqueros de cada una de las líneas sucederán, si los bienes fuesen troncales, en los que procedan de la suya respectiva, sin perjuicio de lo dispuesto en el número 3 del artículo 20.

Si no hubiese ascendientes tronqueros, sucederán en los bienes troncales los colaterales tronqueros designados por el testador, considerándose tácitamente apartados los que no fuesen nombrados. Lo que se adjudique a los colaterales por este concepto no reducirá la parte de libre disposición del testador.

58. atala.-

Alargunak oinordetzailearen ondasun guztien erdiaren gozamina eukiko leuke, ondorengoakaz edo aurrekoakaz batera balego.

Ondorengo zein aurrekorik ez balego, ondasun guztien bi hirurenaren gozamina eukiko leuke.

Azkenengoz, oinordetzailearen belaun-lerro bietako tronkaleko ondasunen gainean jarriko da gozamina, lerrootako bakotxaren eukiaren eredian.

Alargunaren gozamina, tronkaleko ondasunen pentzu danean, eskudiruko kapital baten truke aldatu leikie tronkaleko senideek. Alargunak askatasunez erabili leike dirutza hori eta berori dala-ta ez dau gordekizuna ipinteko eta atzera emoteko beharkizunik eukiko hurrengo lerroaldian aitatzen dan moduan ezeztatzen bada gozamen hori.

Alargunaren gozamen-eskubidea ezereztu egingo da barriro ezkontzen bada, edo beste bategaz ezkontu-bizimodua badaroa, edo ezkontu denboran zein ostean ezkontzatik kanpoko umerik eukiten badau, testamentu-egileak besterik agindu ezean behintzat.

59. atala.-

Jarautsian ez dau oinordeko izateko eskubiderik eukiko berari egotzi lekikion arrazoigaitik dibortziatutako edo banandutako ezkontideak.

60. atala.-

Ezin izango jake seme-alabei, ondorengoei edo aurrekoei askatasunez banatzeko zatia baino ordezen edo karga handiagorik ezarri, beste derrigorrezko oinordekoen alde ez bada.

Tronkaleko ondasunen gainean be ezin izango da ordezen edo kargarik ezarri, belaun-lerro bereko tronkaleko senideren baten alde ez bada.

Alargunari autortutako eskubideak eta bere alde ezarritako gozamen-eskubide orokorraren agintzak ez deusie eragingo senipartearen edo tronkaleko ondasunen ikutu-ezinari.

61. atala.-

Testamentu-egileak bere ondasun guztien gozamina itxi leio ezkontideari, 58. ataleko senipartearentzat ezarritako arrazoi berberakaitik iraungiko dana. Agintza hori eta askatasunez banatzeko dan zatiaren agintza ezin izango dira batera hartu. Edozelan be, testamentu-egileak biak aukeran itxi baditu, alargunari jagoko hautatzea.

62. atala.-

1.- Seniparteari jagokon zatia atarateko, oinordetzarako deia gauzatzen danean jarauntsiak dituan ondasun guztien balioa hartuko da kontuan, zor eta zorpe guztiak kenduta. Urteten dauan zenbatekoari dohaintza zenbatgarriena gehituko jako.

Artículo 58.-

El cónyuge viudo tendrá el usufructo de la mitad de todos los bienes del causante, si concurriere con descendientes o ascendientes.

En defecto de ascendientes o descendientes, tendrá el usufructo de dos tercios de todos los bienes.

El usufructo recaerá en último lugar sobre los bienes troncales de ambas líneas del causante, en proporción al haber de cada una de ellas.

Podrán los tronqueros conmutar el usufructo del cónyuge viudo, en cuanto afecte a los bienes troncales, por un capital en efectivo que será de su libre disponibilidad y no estará sujeto a reserva ni a devolución en los supuestos de extinción a que se refiere el párrafo siguiente.

El derecho de usufructo del cónyuge viudo se extinguirá en el caso de ulteriores nupcias o de unión marital de hecho, o de que tuviere durante el matrimonio, o con posterioridad al mismo, un hijo no matrimonial, salvo que el testador haya dispuesto otra cosa.

Artículo 59.-

Carecerá de derechos sucesorios en la herencia de su consorte el divorciado o el cónyuge separado por causa a él imputable.

Artículo 60.-

No podrá imponerse a los hijos, descendientes o ascendientes, sustitución o gravamen que exceda de la parte de libre disposición, a no ser en favor de otros sucesores forzosos.

Tampoco podrá imponerse sustitución o gravamen sobre bienes troncales, sino a favor de otro pariente tronquero de la misma línea.

No afectarán a la intangibilidad de la legítima, o de los bienes troncales, los derechos reconocidos al cónyuge viudo, ni el legado de usufructo universal a favor del mismo.

Artículo 61.-

El testador podrá legar a su cónyuge el usufructo universal de sus bienes, que se extinguirá por las mismas causas que la legítima del artículo 58. Este legado será incompatible con el legado de la parte de libre disposición, pero si el testador los dispusiere de modo alternativo la elección corresponderá al cónyuge viudo.

Artículo 62.-

1.- Para el cálculo de la cuota de legítima se tomará el valor de todos los bienes de la sucesión al tiempo en que se perfeccione la delación sucesoria, con deducción de las deudas y cargas. Al valor líquido se le adicionará el de las donaciones computables.

Oinordetzailearen tronkaleko ondasunak zenbatgarritu egingo dira seniparteari jagokon zatia atarateko eta, ezer baino lehen, senipartea ordaintzeko ipiniko dira, testamentu-egileak kontrarik beren-beregi adierazo ezean.

Tronkaleko ez diran ondasunakaz derrigorrezko oinordeko ez diranen alde egindako dohaintzak eta inor beren-beregi baztertu barik egindakoak baino ez dira zenbatgarri izango.

- 2.- Dohaintza zenbatgarrien balioa oinordetzilea hil zanean eukena izango da, hartutako ondasunotan hartzaileak ordaindutako hobekuntza onuragarriak eta konpontzeko eta iraunerazoteko egin dituan aparteko gastuak kenduta, bere erruz egin behar izan ez baditu. Ondasunon balioari hartzailearen erruz sortutako eta bere balioa urritu daben arteen balioespenekoa gehituko jako. Hartzaileak emaitza-ondasunak inorendu baditu, inorentzerakoan euken balioa hartuko da kontuan. Hartzailearen erruz galdu diran ondasunetarako, galdu ziranean euken balioa besterik ez da zenbatgarrituko.
- 3.- Derrigorrezko oinordekoen aldeko dohaintzak ez dira jarauntsira itzuli beharrekoak izango, emoleak aurkakorik agindu ezean edo esanbidezko bazterketarik egin izan ez badau.
- 4.- Jarauntsira itzuli beharreko dohaintzek banaketa egiteko unean euken balioa izango dabe.

63. atala.-

Oinordetzailearen zorrak ondasun mugikorrakaz eta tronkaleko ez diran ondasun mugiezinakaz ordainduko dira. Ez batekorik eta ez bestekorik ez dagoanean bakarrik izango dira erantzule belaun-lerro bakotzeko tronkaleko onibarrak, bakotxaren ginoan.

64. atala.-

Testamentu-podererik balego, senipartea zehazteko ondasunen balioa honakook atarako leukie:

- 1.- Eskuordekoak, jarauntsia berari ez bajoako.
- 2.- Eskuordekoak, oinordetzaileak izendatutako kontulari-banatzaileagaz batera.
- 3.- Eskuordekoak, oinordeko ustezkoakaz batera.
- 4.- Epailearen erabagiz.

65. atala.-

Oinordetza ezkontza-hitzarmenez, oinordetza-itunez edo dohaintza-eskrituraz burutzen danean, bazterketea 54. eta 57. ataletan agindutako eran egin behar da eta 62.3. atalean esandako ondorioak eukiko ditu.

Los bienes troncales del causante se computarán para el cálculo de la cuota de legítima, y se entenderán imputados en primer lugar al pago de la misma, salvo disposición expresa en contrario del testador.

Sólo serán computables las donaciones de bienes no troncales efectuadas a favor de quienes no sean sucesores forzosos y todas aquéllas en que no medie apartamiento expreso.

- 2.- El valor de las donaciones computables será el que tenían al tiempo de fallecer el causante, previa deducción de las mejoras útiles costeadas por el donatario en los bienes donados y del importe de los gastos extraordinarios de conservación o reparación que haya sufragado el mismo, no causados por su culpa. Al valor de los bienes se agregará la estimación de los deterioros originados por culpa del donatario que hubiesen disminuido su valor. De haber enajenado el donatario los bienes donados, se tomará como valor el que tenían en el momento de su enajenación. De los bienes que hubiesen perecido por culpa del donatario, sólo se computará su valor al tiempo en que su destrucción tuvo lugar.
- 3.- No serán colacionables las donaciones en favor de sucesores forzosos, salvo que el donante disponga lo contrario o no haga apartamiento expreso.
- 4.- Las donaciones colacionables lo serán por el valor de las mismas al tiempo de la partición.

Artículo 63.-

Las deudas del causante se pagarán con el importe de los bienes muebles y de los bienes inmuebles no troncales, y sólo en defecto de unos y otros responderán los bienes raíces troncales de cada línea, en proporción a su cuantía.

Artículo 64.-

Si hubiese poder testatorio, la valoración de los bienes para fijar la legítima se hará:

- 1.- Por el comisario, si no tuviese interés en la sucesión.
- 2.- Por el comisario, con el contador-partidor que el causante hubiese designado.
- 3.- Por el comisario con los sucesores presuntos.
- 4.- Por decisión judicial.

Artículo 65.-

Cuando la sucesión se defiera en capitulaciones matrimoniales, pacto sucesorio o escritura de donación, el apartamiento deberá hacerse en la forma establecida en los artículos 54 y 57, con los efectos del artículo 62.3.

66. atala.-

Legez mantenua eskatu leikien oinordetzilearen ondorengoez haren oinordekoei eskatu leikiee mantenuori, legeria zibil orokorraren arabera horretara behartutako beste inor ez balego.

Oinordeko bakotzak jarauntsitako ondasunen ereduari emon beharko dau mantenua eta ondasunen balioaren gainetik ez dau beharkizunik eukiko.

III. ATALBURUA TESTAMENTURIK BAKO OINORDETZA

67. atala.-

Testamentu bako oinordetza seme-alaben alde burutuko da, berezko eskubidez, eta bestelako ondorengoen alde, ordezkotza-eskubidez.

68. atala.-

Aurreko atalean aitaturako ondorengorik ez badago, jarauntsia holantxe banatuko da:

- a) Amaren zein aitaren aldeko belaun-lerroko tronkaleko ondasunak belaun-lerro bakotzeko tronkaleko aurrekoei jagokez, ezkontza bitartean erosi edo irabazitakoen gainean 20. ataleko 3. zenbakian esandakoaren kalte barik. Belaun-lerroren baten tronkaleko aurrekorik ez dagoanean, ondasunok horren alboko senide tronkalekoei jagokez.
- b) Tronkaleko ez diran ondasunetan, guraso biak izango dira oinordeko edo biotatik bizirik dagoana. Guraso bizirik ezean, belaun-lerro bietako aurrekoen artean erdibituko dira, aurrekook edo zein belauneko dirala be. Belaun-lerro biotako baten aurretikorik ez dagoanean, badagoaneko belaun-lerroko aurrekoei jagokez ondasun guztiak.

69. atala.-

Ondorengorik ez aurrekorik ez badago, alarguna izango da jarauntsiaren oinordeko, alboko senideak baino lehenago, tronkaleko ez diran ondasun guztietan.

Bestelakoetan, alargunak 58. atalean autortutako seniparte-eskubideak izango ditu.

70. atala.-

Ez aurrekorik ezta ezkontiderik be ez dagoanean, tronkaleko ez diran ondasunak alboko senideetako belaun-lerro bien artean erdibituko dira, laugarren belaun-mailaraino, belaun-lerro bakotzeko senideen hurrentasuna edozein dala be.

Biotakoren baten alboko seniderik ez dagoanean, beste lerroko alboko senideei jagokez ondasunok osoz.

Artículo 66.-

Los descendientes del causante que se encuentren en situación legal de pedir alimentos podrán reclamarlos de los sucesores del mismo, cuando no haya persona obligada a prestarlos de acuerdo con la legislación civil general.

Los sucesores prestarán alimentos en proporción a los bienes que cada uno hubiere recibido, y no vendrán obligados más allá de lo que alcance su valor.

CAPÍTULO III DE LA SUCESION "AB INTESTATO"

Artículo 67.-

La sucesión intestada se deferirá en favor de los hijos, por derecho propio, y de los demás descendientes, por derecho de representación.

Artículo 68.-

A falta de los sucesores expresados en el artículo anterior, la sucesión se ordenará del modo siguiente:

- a) Los bienes troncales de cada una de las líneas paterna o materna corresponderán a los ascendientes tronqueros de la línea de donde procedan, sin perjuicio de lo dispuesto respecto de los comprados o ganados, constante el matrimonio, por el número 3 del artículo 20. Si en alguna de las líneas no hay ascendientes tronqueros los bienes corresponderán a los colaterales tronqueros de la misma.
- b) En los bienes no troncales sucederán ambos padres o el que de ellos sobreviviere. En su defecto, se repartirán por iguales partes entre las dos líneas de ascendientes, sea cual fuere la proximidad de los ascendientes en una y otra línea. Si en alguna de ellas no hay ascendientes, la totalidad de dichos bienes corresponderá a los ascendientes de la línea en que los haya.

Artículo 69.-

A falta de descendientes y ascendientes sucederá el cónyuge viudo, con preferencia a los colaterales, en todos los bienes no troncales.

En los demás casos, conservará los derechos legítimos recogidos en el artículo 58.

Artículo 70.-

A falta de ascendientes y cónyuge, los bienes no troncales se repartirán por mitad entre las dos líneas colaterales, hasta el cuarto grado, sea cual fuere la proximidad de los parientes en una u otra.

Sólo cuando en una de las dos no haya colaterales, pasarán íntegramente a los colaterales de la única línea en que los haya.

71. atala.-

Belaun-lerro bakotxean, amarenean zein aitarenean, hurragoko senideak urrinagokoa kanporatzen dau. Lehentasuna dauken senideak bat baino gehiago badira, ondasunak euren artean banatuko dira zati bardinetan.

72. atala.-

Alboko belaun-lerroan, neba-arrebak eta neba-arrebon seme-alabak batera diranean baino ez da ordezkotza-eskubiderik izango. Neba-arrebok buruko eta seme-alabok erroko hartuta izango dira oinordeko. Guraso bietako neba-arrebak eta guraso bakarreko neba-arrebak batera diranean, lehenengoei bigarreniei halako zati bi jagoke jarauntsian.

73. atala.-

Testamentu bako oinordetzetan, alboko seniderik be ez badago, oinordetzailearen herritasunari jago-kon Lurraldeko Foru Aldundiari dei egingo jake.

IV. ATALBURUA OINORDETZA-ITUNAK

74. atala.-

Ezkontza-hitzaimezez, dohaintzaz edo Eskribau aurreko eskritura bidez egindako itunaz banatu leitekez jarauntsiko ondasunak, guztiak edo batzuk, bertan agindutako era, gordez, ordezkatzeko, itzultze-hizpaketa, zorpe eta betekizunakaz. Eskritura-egileek, gainera, daukezan ondasun guztiak edo batzuk unean bertan eskualdatzea edo hildakoan egitea erabagi leikie.

75. atala.-

Ondasunen oinordekoa oinordetza-itunez izendatzen bada, indar barik geratuko da aurretik testamentu bidez egindako edozein ondasun-banaketa.

Izendapen hori, egin dabenen edo euren ondorengoen arteko itun barri batez baino ezin izango da aldatu, ezta iraungi be eta, beti be, alde biek itundutako arrazoiakaitik baino ez.

76. atala.-

Mortis causa egindako ondasun jakin baten dohaintza oinordetza-ituntzat joko da, baita intervivos ekintzaren bidezko ondasun guztien dohaintza be, besterik hitzartu ezean.

77. atala.-

Ondasunak unean bertan eskualdatzeko egiten dan oinordeko-izendapenak ondasunen jabetza emoten deutso oinordekoari, izendatzailearen, familiaren zein ondasunen irabazpidearen mesedean alde biek hitzartutako muga-baldintzakaz. Horregaitik, edozelango erabagik edo karga-ekintzak izendatzailearen eta izendatutakoaren arteko adostasun baterakoa beharko dau baliozkoa izateko, bestelako itunik ezean.

Artículo 71.-

En cada una de las líneas, paterna o materna, el pariente más próximo excluye al más remoto. Si los parientes de grado preferente son varios, los bienes se repartirán entre ellos por partes iguales.

Artículo 72.-

En la línea colateral se dará el derecho de representación sólo cuando concurren hermanos con hijos de hermanos, sucediendo los primeros por cabezas y los segundos por estirpes. Si concurren hermanos de doble vínculo con hermanos de vínculo sencillo, aquellos sucederán en doble porción que estos.

Artículo 73.-

En la sucesión "ab intestato", a falta de colaterales, será llamada la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente a la vecindad del causante.

CAPÍTULO IV DE LOS PACTOS SUCESORIOS

Artículo 74.-

Mediante capitulaciones matrimoniales, donación o pacto otorgado en escritura pública, se puede disponer la sucesión en bienes de los otorgantes, bien a título universal o particular, con las modalidades, reservas, sustituciones, cláusulas de reversión, cargas y obligaciones que se acuerden. Los otorgantes podrán, asimismo, ordenar la transmisión actual de todos los bienes presentes, o parte de ellos, o bien diferirla al momento de la muerte.

Artículo 75.-

La designación de sucesor en bienes por pacto sucesorio deja sin efecto cualquier disposición testamentaria anterior sobre los propios bienes.

Dicha designación sólo podrá modificarse o resolverse mediante nuevo pacto entre los otorgantes o sus sucesores, y por las causas que hayan establecido las partes.

Artículo 76.-

La donación "mortis causa" de bienes singulares se considera pacto sucesorio, y también lo será la donación universal "inter vivos", salvo estipulación en contrario.

Artículo 77.-

La designación sucesoria con transmisión de presente de los bienes confiere al sucesor la titularidad de los mismos, con limitaciones pactadas en interés de los instituyentes, de la familia y de la explotación de los bienes, por lo que, salvo pacto en contrario, todo acto de disposición o gravamen requerirá para su validez el consentimiento conjunto del instituyente e instituido.

78. atala.-

Hil ostean indarra euki dagian egindako oinordeko-izendapenak ondasunon oinordeko izaerea emoten deitso izendatutakoari eta berak ezin izango dau ez inorendu ez zorpetu. Ezkontzeko dagoan seme edo alabea izendatu bada oinordeko, honek bere seme-alabei edo ondorengoei banatu leikioez ondasunok duban, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzen bidez.

Izendatzaileek ondasunon jabe izaten jarraitzen badabe be, ordainbidez baino ezin izango dabez ondasunok banatu.

79. atala.-

Izendatzaileek honako honeetan ezeztu leikie izendapena:

- 1.- Itundutako arrazoiakaitik.
- 2.- Ipinitako zorpe eta baldintzetan ez betete larria egin izanagaitik.
- 3.- Izendatutakoak ezgaitzeko edo oinordetza galtzeko arrazoi diranetakoren bat egin badau.
- 4.- Izendatutakoak familikoen eguneroko alkarbizitza galerazoz jokutzen badau.
- 5.- Izendatutakoen ezkontzaren banantze, baliobakotze edo dibortzioa jazo ezker, oinordetza-ituna ezkontzagaitik egin danean.

80. atala.-

Oinordeko izendapena honako honeetan iraungiko da:

- 1.- Izendapena baldintzatzen eban iraungitze-kasua jazo ezker.
- 2.- Izendatutakoa ondorengo barik hil daitenean.
- 3.- Izendatzaileen erabagiz, Eskribau-eskrituraz gauzatuta.

81. atala.-

Aurreko ataletan aitatutako kasuetan, euren kontura egindako hobekuntzen eta gehikuntzen eguneratutako balioa ordaindu beharko jake izendatutakoei urtebeteko epean.

82. atala.-

Izendatzaileek eta izendatutakoek alkarregaz bizi-ko dirala edo gozamen-eskubidea zein antzeko beste ahalmenen bat ez galtzea itundu badabe izendatzaileen alde, bietako bat hilda bere alargunak osorik eta bizi dan artean gordeko ditu eskubideok.

Artículo 78.-

La designación sucesoria con eficacia "post mortem" confiere al instituido la cualidad de sucesor en los bienes, que será inalienable e inembargable. Si la designación se hizo a favor del hijo que va a contraer matrimonio, éste podrá disponer de su derecho a título gratuito, por actos "inter vivos" o "mortis causa", a favor de sus hijos y descendientes.

Si bien los instituyentes conservan la propiedad de los bienes, sólo podrán disponer de los mismos a título oneroso.

Artículo 79.-

Los instituyentes pueden revocar la designación:

- 1.- Por las causas pactadas.
- 2.- Por incumplimiento grave de las cargas y condiciones establecidas.
- 3.- Por haber incurrido el instituido en causa de indignidad o desheredación.
- 4.- Por conducta del instituido que impida la normal convivencia familiar.
- 5.- En los casos de nulidad matrimonial, separación o divorcio de los instituidos, cuando el pacto sucesorio se haya otorgado en atención a ese matrimonio.

Artículo 80.-

Se resolverá la designación sucesoria:

- 1.- Por cumplimiento de la condición resolutoria a la que estaba sujeta.
- 2.- Por fallecimiento del instituido sin que dejare descendencia.
- 3.- Por acuerdo entre los otorgantes formalizado en escritura pública.

Artículo 81.-

En los supuestos expresados en los artículos anteriores, deberá abonarse, en el plazo de un año, el valor actual de las mejoras e incorporaciones que hubiesen costado los instituidos.

Artículo 82.-

Si se hubiere pactado la comunidad de vida entre instituyentes e instituidos, reserva de usufructo o de otras facultades análogas a favor de los primeros, se entenderá que, por muerte de uno de los instituyentes, el cónyuge superviviente conserva íntegros y con carácter vitalicio los derechos que los mismos se hubieran reservado.

83. atala.-

Ezkontzera doanen bat oinordeko izendatzen bada eta izendatutakoa arinago hiltzen bada, berari jakokun eskubidea seme-alabei eta ondorengoei eskualdatuko jake.

Izendatutakoa ondorengorik itxi barik hilgo baltz, izendatzaileari itzuliko litxakioz unean bertan eskualdatzeko itunpeko ondare edo ondasunak.

V. ATALBURUA
GINORDETZEKO EREI BURUZKO BATERAKO ERA-
BAGIAK

84. atala.-

Ondorengoren batek beste aurreko edo neba-a-rrabaren bategandik irabazpidez jasotako tronkaleko ez diran ondasunak bere aurrekoren bati itxi ezkeru, a-rruko horrek ondasunak datoza lezroko hirugarren belaun-mailarainoko senideentzat gorde beharko ditu lege-indarrez jasotakoak.

85. atala.-

Gurasoengandik onibarrik duban lortu izan dauan seme-alabak onibarrok barriro be duban esku-ratzen badeutsoz aitari edo amari, eta dana dalako gu-raso horrek, gerokoan barriro ezkondu edo aurrean hildako ezkontidearena ez dan seme-alabarik izan ez-keru, eskualdatzailearen eta bere guraso bereko neba-arrebentzat edo euren edozein ondorengorentzat gorde beharko ditu ondasunok.

86. atala.-

Barriro ezkontzen dan alargunak, edo aurrerago hildako ezkontidearena ez dan seme-alabarik dauka-nak, hildako ezkontidearen tronkaleko senideentzat gorde beharko ditu hildakoagandik foru-komunika-zioaren bidez etorritako tronkaleko ondasunak.

Kasuotan be, ezkontideren bat hil izanagaitik fo-ru-komunikazioa amaitzean, alargunak jasotako onda-sunek bere jatorrizkoen eta irabazitako erdiaren batu-ketak baino balio handiagoa badauke, gaindik hori ezkontza horretatik sortutako seme-alaba eta ondoren-goentzat gorde beharko dau alargunak.

87. atala.-

Ezkontzagaitik, ezkontza aurretik zein ostean, emondako ondasun mugiezinen oinordeko, ezkontza horretatik sortutako seme-alabak edo ondorengoak baino ez dira izango.

88. atala.-

Barriro ezkontzen dan alargunak, edo aurrerago hildako ezkontidearena ez dan seme-alabarik dauka-nak, hildakoagandik testamentuz, dohaintzaz edo ira-bazpidezko beste edozein eratan jasotako ondasun guztiak gorde beharko ditu aitaturako hildakoaren se-me-alaba eta ondorengoentzat.

Artículo 83.-

La designación sucesoria otorgada a favor de un contrayente determinará que, por premoriencia del ins-tituido, se transmita su derecho a los hijos y descen-dientes.

Revertirán al instituyente el patrimonio o bienes objeto de pacto con transmisión de presente, en el su-puesto de premoriencia del instituido sin que dejare descendencia.

CAPÍTULO V
DISPOSICIONES COMUNES A LAS DISTINTAS
FORMAS DE SUCEDER

Artículo 84.-

El ascendiente que heredare de su descendiente bienes no troncales que éste hubiere adquirido por tí-tulo lucrativo de otro ascendiente o de un hermano, se halla obligado a reservar los que hubiere adquirido por ministerio de la ley en favor de los parientes que estén dentro del tercer grado y pertenezcan a la línea de donde los bienes procedan.

Artículo 85.-

El padre o la madre que a título gratuito adquie-re de un hijo bienes raíces que éste a su vez hubiese adquirido, también a título gratuito, de su madre o de su padre, tendrá, si contrae ulterior matrimonio o tiene un hijo que no lo sea del cónyuge premuerto, la obli-gación de reservarlos a favor del transmitente y de sus hermanos de doble vínculo, o de los descendientes de cualquiera de ellos.

Artículo 86.-

El viudo que contraiga ulterior matrimonio o tenga algún hijo que no lo sea del cónyuge premuerto está obligado a reservar, a favor de los parientes tron-queros de su expresado cónyuge, los bienes troncales pro-cedentes de éste que hubiese adquirido por comu-nicación foral.

En los mismos supuestos, el cónyuge viudo que al disolverse la comunicación foral hubiese recibido bienes cuyo valor sea mayor que la suma de los bienes de su procedencia y la mitad de los ganados, está obli-gado a reservar el exceso a favor de los hijos y descen-dientes del matrimonio disuelto.

Artículo 87.-

En los bienes raíces donados para un matrimo-nio, antes o después de su celebración, sucederán los hijos o descendientes habidos de él, con exclusión de cualesquiera otros.

Artículo 88.-

El viudo o viuda que pase a ulterior matrimonio, o tenga un hijo que no lo sea de su difunto consorte, estará obligado a reservar a los hijos y descendientes del expresado cónyuge premuerto todos los bienes que haya adquirido de éste por testamento, donación u otro cualquier título lucrativo.

89. atala.-

Hemen zehaztutako gordekizunak, edozelan be, gordetzaileak egindako eraikuntza, landaketa eta hobakuntzei baino ez jagokez, gordetzaile horri edo bere oinordekoei eguneratutako euron balioa ordaindu beharko jakela. Ordainketa hori gordetakoaren hartzaileak ondasunok eskuratu daizan egunean hasita urtebete eta egun bateko epe barruan egin beharko da.

90. atala.-

Atalburu honetan araututako kasu guztietan gordetzaileak gordetakoaren hartzaileen artean izendatu leike ondorengoa, testamentu bidezko oinordetzetarako araututakoaren arabera, eta gordetzaileak ezingo dau ordezkapenik egin edo kargarik jarri hartzaileon alde ez bada.

91. atala.-

Aurrekoak baino ez dira oinordeko izango ume-rik izan barik hildako euren seme-alabei edo ondorengoei emondako tronkaleko ez diran ondasunei jagokenean, beti be oinordetzan emondako ondasun berberok badagoz. Ondasunok inorendu egin badira, dohaintza-hartzaileak eurokaitik izan daizan eskubide guztiak eukiko ditue aurrekoek. Era berean, ondasunok saldu izan balira, salneurria eskuratu leikie, eta trukatu edo aldatu egin balira, euron ordezkasotakoa.

92. atala.-

Mantenu-beharraz emondako ondasunen hartzailea seme-alaba edo ondorengo barik hiltzen bada emolea bizi dala, emoleari itzuliko jakoz ondasunok.

Kasu horretan, emolea bizi dala, dohaintza-hartzaileak ezingo dauz jasotako ondasunok inorendu, kargatu edo euroi buruz erabagi, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzaz, dubaneko ekintzaz, bere seme-alaba edo ondorengoen alde izan ezean.

IV. IDAZPURURA**EZKONTZAREN ONDASUN-JAURPIDEA ETA FORUKOMUNIKAZIOA****I. ATALBURUA
ERABAGI OROKORRAK****93. atala.-**

Ezkontzaren ondasunen jaurpidea ezkontideek, ezkondu aurretik zein ostean, askatasunez Eskribau-eskritura bidez itundu dagiena izango da.

Ezkontzaren ondasunen jaurpidea, itundutakoa zein legezkoa, aldatu egin leiteke ezkontza-hitzarmen bidez.

Edozelan be, ezkontzaren ondasunen jaurpidean izandako aldaketak ez dira beste inork eskuratutako eskubideen edo tronkaletik eratorritakoen kalterako izango.

Artículo 89.-

Las reservas aquí reguladas alcanzan, en todo caso, a los edificios, plantíos y mejoras que hubieren sido hechos por el reservista, con la obligación de satisfacer a éste o a sus herederos el valor actual de los mismos, dentro del año y día a contar de la fecha en que el reservatario hubiere entrado en su posesión.

Artículo 90.-

El reservista, en todos los casos regulados en este Capítulo, podrá designar sucesor entre los reservatarios, en los términos establecidos para la sucesión testada, y no podrá imponer sustituciones y gravámenes sino en favor de ellos.

Artículo 91.-

Los ascendientes suceden con exclusión de otras personas en los bienes no troncales dados por ellos a sus hijos o descendientes muertos sin posteridad, cuando los mismos objetos donados existan en la sucesión. Si hubieren sido enajenados, sucederán en todas las acciones que el donatario tuviera en relación a ellos, y en el precio si se hubieren vendido, o en los bienes con que se hayan sustituido si los permutó o cambió.

Artículo 92.-

Revertirán al donante los bienes donados con carga de alimentos, si el donatario falleciere en vida de aquél sin dejar hijos ni descendientes.

El donatario no podrá, en este caso, en vida del donante, enajenar, gravar ni disponer, por título gratuito, "inter vivos" o "mortis causa", de los bienes donados, a no ser en favor de sus hijos o descendientes.

**TÍTULO IV
DEL RÉGIMEN DE BIENES EN EL MATRIMONIO Y
DE LA COMUNICACIÓN FORAL****CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES****Artículo 93.-**

El régimen económico del matrimonio será el que libremente pacten los cónyuges en escritura pública, antes o después de su celebración.

El régimen económico matrimonial, tanto el pactado como el legal, podrá ser modificado mediante el otorgamiento de capitulaciones matrimoniales.

En ningún caso las modificaciones en el régimen económico matrimonial perjudicarán los derechos adquiridos por terceros, ni los derivados de la troncalidad.

94. atala.-

Itunik egon ez daitenean hurrengo kasuetan uler-tuko da ezkogaiaik foru-komunikaziopean ezkontzen dirala: biak forudun bizkaitarrak diranean; biok herri-tasun hori ez daukienean batera biziteko izan dagien lehenengo ohizko egoitza Lur Lauan badago; eta bate-rako egoitza hori euki ezean, Lur Lauan ezkondu ba-dira.

II. ATALBURUA

ONDASUNEN FORU-KOMUNIKAZIOA

95. atala.-

Foru-komunikazioaren bidez ezkontideek erdi-bana eukiko dabez ondasun mugiezin edo mugikor guztiak, ondasunen jatorria dana dalakoa dala, batenak zein bestearenak izan, bardin ezkontzara bakotzak ekarritakoak zein ezkontzan zehar irabazitakoak, on-dasunok dagozan lekuak zerikusirik ez daukala.

Foru-komunikazioak, ezkontzak dirauan artean, Foruan zehaztutako zabalkunde eta mugak daukaz, eta berez eta beste barik amaituko da ezkontzaren banan-tze, baliobakotze edo dibortzio-epaiatz, baita ezkon-tza-hitzarmenez be ezkontideek beste ondasunen jaur-pideren bat aukeratzen badabe.

Foru-komunikazioa epailearen erabagiz eta ez-kontideren batek eskatuta amaitu leiteke, hurrengo ka-suotan:

- 1.- Beste ezkontidea ezgaitua izan, alde egindakotzat jo, porrot eginda dagoala edo zor-hartzekodunak daukazala aldarrikatu edo familia izteagaitik zi-gortu dabelako epaibidez.
- 2.- Beste ezkontideak bere eskubideen kalterako era-bagiak hartu edo kudeaketa egiten dauanean.
- 3.- Epai barik bananduta urtebete edo gehiago ego-tea, alkarregaz bat etorrita bada be.

96. atala.-

Foru-komunikazioa, ezkontzeaz batera sortzen dana, seme-alaba edo ondorengorik alkarregaz izan da-ben ezkontideetariko bat hilteagaitik desagiten dan unean finkatzen da.

97. atala.-

Foru-komunikazioan, irabazitako eta ezkontide bakotzak ekarritako ondasunen arteko bereizkuntza, legeria zibil orokorrak irabazpidezko ondasunetarako eta bakarrekotarako emoten dituan arauai jarraituz egingo da.

98. atala.-

Ezkontzako zorpeak, lehenengo eta behin, iraba-zitako ondasunakaz ordainduko dira, eta holakorik ez balego edo dagozanak nahikoa ez balira baino ez litza-tekez ezkontide bakotxaren jatorrizko ondasunen pen-tzu ordainduko, euren balioaren erduan.

Artículo 94.-

A falta de pacto, se entenderán sujetos a comu-nicación foral los matrimonios en que ambos contra-yentes sean vizcaínos aforados o, a falta de vecindad común, si fijan la residencia habitual común inmedia-tamente posterior a su celebración en la Tierra Llana, y, a falta de dicha residencia común, si en ella ha te-nido lugar la celebración del matrimonio.

CAPÍTULO II

DE LA COMUNICACIÓN FORAL DE BIENES

Artículo 95.-

En virtud de la comunicación foral se harán co-munes, por mitad entre marido y mujer, todos los bie-nes muebles o raíces, de la procedencia que sean, per-tenecientes a una u otra, por cualquier título, tanto los aportados como los adquiridos en constante matrimo-nio y sea cual fuere el lugar en que radiquen.

La comunicación foral, constante matrimonio, tiene el alcance y las limitaciones previstas en este Fuero, y cesará automáticamente por sentencia de se-paración conyugal, nulidad de matrimonio o divorcio, así como por el otorgamiento de capitulaciones matri-moniales, cuando los cónyuges se acojan a un régimen económico matrimonial de distinta naturaleza.

También cesará la comunicación foral por deci-sión judicial, y a petición de uno de los cónyuges, en los siguientes casos:

- 1.- Haber sido el otro cónyuge judicialmente inca-pacitado, declarado ausente o en quiebra o con-curso de acreedores, o condenado por abandono de familia.
- 2.- Venir realizando el otro cónyuge actos de dispo-sición o de gestión en daño o fraude de sus dere-chos.
- 3.- Llevar separado de hecho durante más de un año, aunque fuese de mutuo acuerdo.

Artículo 96.-

La comunicación foral, que nace con el matri-monio, se consolida en el momento de su disolución por fallecimiento de uno de los cónyuges con hijos o descendientes comunes.

Artículo 97.-

En la comunicación foral, la distinción entre bie-nes ganados y bienes procedentes de cada uno de los cónyuges se ajustará a las normas de la legislación civil general sobre bienes gananciales y bienes privativos.

Artículo 98.-

Las cargas del matrimonio serán sufragadas, en primer lugar, con los bienes ganados, y sólo a falta o por insuficiencia de ellos responderán los bienes proce-dentes de cada cónyuge, en proporción a su valor.

Azkenon pentzu egindakoak gerokoan izan daitezkezan irabaziakaz ordainduko dira.

99. atala.-

Foru-komunikazioak dirauan artean, ondasunei buruz erabagiteko ezkontide bien baimena beharko da.

Ezkontideetarikoa batek baimen hori emon gura ez baleu, Epaileak emon leike horretarako baimena, familiaren onerako dala baderitxo.

Edozelan be, ezkontide bakotzak bere kabuz erabili leikez bere izenean dagozan diru edo ondasun mugikorrak.

100. atala.-

Ezkontide bakotxari berari baino ez jagoko bere jatorrizko ondasunak administratzea.

101. atala.-

Batera irabazitako ondasunak administratzea ezkontide biei jagoke, hori dala-ta Merkataritza-Kodean zehaztutakoaren eragozpen barik.

102. atala.-

Beste ezkontidearen baimen barik egindako zorrak eta betebeharrak zorpetutakoari foru-komunikazioaren bidez jagokon erdiaren pentzu ordainduko dira, hurrengoetan izan ezik:

Lehenengoa.- Zorpetu ez dan ezkontidearen ondasunak beti geratuko dira erantzunkizunetik kanpo.

Bigarrena.- Irabazitako ondasunen eta zorpetutakoaren jatorrizko ondasunen pentzuko erantzunkizuna hurrengo arauoi jarraituz izango da:

- 1.- Bahiturea jakinerazo egin beharko jako zordun ez dan ezkontideari. Horrek, hamabost egutegi-eguneko epea dauka foru-komunikazioa amaitu daiten eskatzeko, 109. atalean zehaztutakoaren arabera. Holakorik jazo ezkeror, zorpetutakoari eslitutako ondasunen pentzu baino ez da zorra ordainduko eta hortik aurrera ondasunen banatze-jaurpidea izango dau ezkontzak. Eskubide hori ez da izango hartzekodunak zorra familiaren onerako izan dala erakusten badau.
- 2.- Foru-komunikazioa amaitzeagaitiko ondasunak norbaiti esleitzea beterazpen-ekinbide berean, baina bereiztuta, gauzatuko da, jarauntsiak banatzeko arauoi jarraituaz.
- 3.- Zordun ez dan ezkontideak barriro be ondasunak foru-komu izatea eskatu lei, bakotxari egokion erdia izendatu zantetik sei hilabeteko epe barruan, eskari hori Eskribau-ekritura bidez egin beharko dala.

Lo satisfecho con estos últimos será compensado con las ganancias futuras.

Artículo 99.-

En la comunicación foral, los actos de disposición de bienes requerirán del consentimiento de ambos cónyuges.

Si uno de los cónyuges se negara a otorgarlo, podrá el Juez autorizar la disposición si lo considera de interés para la familia.

No obstante, cualquiera de los cónyuges podrá, por sí solo, disponer del dinero o valores mobiliarios de los que sea titular.

Artículo 100.-

Corresponderá en exclusiva a cada cónyuge la administración de los bienes de su procedencia.

Artículo 101.-

La administración de los bienes ganados corresponderá conjuntamente a ambos cónyuges, sin perjuicio de lo establecido a tal efecto en el Código de Comercio.

Artículo 102.-

Las deudas y obligaciones contraídas por cualquiera de los cónyuges, sin consentimiento del otro, únicamente serán de cargo de la respectiva mitad comunicada del obligado, con las limitaciones siguientes.

Primera.- Quedarán siempre libres de responsabilidad los bienes procedentes del cónyuge no deudor.

Segunda.- La responsabilidad de los bienes ganados y de los procedentes del deudor estará sujeta a las siguientes reglas:

- 1.- El embargo deberá ser notificado al cónyuge no deudor, quien tendrá derecho a pedir, en el plazo de quince días naturales, la disolución de la comunicación foral por las reglas del artículo 109, en cuyo caso sólo quedarán sujetos a responsabilidad los bienes adjudicados al obligado, y el matrimonio pasará a regirse por el régimen de separación de bienes. Este derecho no tendrá lugar si el acreedor probare que la deuda ha repercutido en beneficio de la familia.
- 2.- La adjudicación de los bienes por disolución de la comunicación foral se llevará a cabo, en pieza separada, en el mismo procedimiento de ejecución, por las normas establecidas para la partición de las herencias.
- 3.- Dentro del plazo de seis meses a contar de la adjudicación de los bienes comunicados, el cónyuge no deudor podrá optar por iniciar de nuevo la comunicación foral, manifestándolo en documento público.

Hirugarrena.- Foru-komunikazioan zordunari jagokon erdia zorrak ordaintzeko erabili egin bada, beti be ezkontzak iraun egiten badau, geratzen dan beste erdia dala-ta ez dau zordunak inolako parterik izango, zorrik bako ezkontidearen administrazinopean geratzen dala. Honek epailearen baimen barik ezin izango dau inorendu eta bertatik eratorritakoa familiaren agizko gastuetarako erabili behar izango da.

Edozelan be, zorra ordaintzeko erabilitako ondasunak ezkontide zordunak jasotakotzat joko dira, foru-komunikazioagaitik jagokonaren pentzu, ondasunon balioa ezkontzaren orduko ondasunen jaurpidea amaitzean eukena izango dala.

103. atala.-

Foru-komunikazioak dirauan artean, jaraunspenen batera deitutako ezkontideak derrigorrez onartu beharko dau beste ezkontideak ez onartzeko baimenik emoten ez badeutso. Adostasunik ez bada, jarauntsia, bere zorrei dagozan ondasunen neurrian baino ez erantzutekotan onartzen dala ulertuko da.

III. ATALBURUA

FORU-KOMUNIKAZIOAREN JAURPIDEA AMAITZEAZ

104. atala.-

Ezkontideetariko bat hilteagaitik ezkontza desgina eta bien seme-alabak izan daitezanean finkatzen da foru-komunikazioa eta ondasun-erkidego bihurtzen da. Erkidego hori alde batetik alargunak eta beste batetik hildakoaren seme-alaba edo ondorengoek osatzen dabe, ondasunak banatu eta eslaitu arte iraungo daua.

105. atala.-

Oinordetzaileak eskuordekoa izendatu badau ondasunek erkidegoan jarraituko dabe oinordekoa izendatu arte. Ondasunok holan jarraitu dagien artean alarguna izango da, testamentu egileak bestelakorik agindu ezean, jaraunspenaren ordezkari bakarra eta ondasuntza guztiaren administraria, izendatutako oinordekoek jarauntsia onartzen ez daben bitartean.

Testamentu-egileak bestelakorik agindu ezean, bakarrik edo beste batzukaz batera eskuordeko izendatutako alargunak, testamentu egiteko poderea erabili arte, ondasuntza guztiaren gozamenerako eskubidea izango dau, bermerik ipini behar izango ez daua.

106. atala.-

104. atalean zehaztutakoaren salbuespen lez, eskuordeko izendatutako alargunak bere buruari esleitutako leikio ondasun guzti-guztien erdia, beste erdia hildakoaren oinordekoentzako itxita, tronkaleko ondasunak gorde beharrari kalte egin barik.

Oinordetzaileak izendatutako kontulari-banatzailerik badago, eskuordeko ezkontideak, kontulari-banatzailleagaz batera, eratutako ondasun-erkidegoa ezabatu eta kitatu egin leike, 108. atalean zehaztutako eran, oinordetzailearen oinordetzari berari izendatutako onda-

Tercera.- Si dicha mitad comunicada del obligado fuera vendida, el cónyuge responsable no tendrá, constante matrimonio, parte alguna en la mitad restante, que quedará bajo la administración del otro cónyuge. No podrá éste enajenarla sin autorización judicial, y deberá destinar sus frutos a los gastos ordinarios de la familia.

En todo caso, los bienes sobre los que se haya hecho efectiva la ejecución se imputarán como recibidos por el cónyuge deudor, a cuenta de su participación en la comunicación, por el valor de aquellos al tiempo de liquidarse la sociedad conyugal.

Artículo 103.-

Durante la vigencia de la comunicación foral, el cónyuge llamado a una herencia no podrá repudiarla sin el consentimiento del otro. A falta de acuerdo, se entenderá aceptada a beneficio de inventario.

CAPÍTULO III

